



**ikus  
pegi** Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración

eman la zabalazazu  
  
Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea




**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
BERDINTASUN, JUSTITZIA  
ETA IZARDARTE POLITIKERAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



# NEURTU

# 2023

EAEko aniztasunari buruzko barometroa  
Erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak



CIP. Biblioteca Universitaria

**Neurtu** 2023, EAEko aniztasunari buruzko barometroa [Recurso electrónico]: erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak / Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia. – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2024]. – 1 recurso en línea : PDF (140 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-248-7.

1. Pluralismo religioso – Opinión pública. 2. Libertad religiosa – País Vasco. 3. Discriminación – País Vasco. I. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)316.64:2(460.15)

*Argitaraldi elektronikoa*

Ikertzaile-taldea: Julia Shershneva Zastavnaia (koordinatzailea)  
Lía González Estepa  
Maite Fouassier Zamalloa  
Ane Estebaranz Delgado  
*Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia*  
José Antonio Oleaga Páramo

Talde laguntzailea: Puerto García Ortiz  
*Fundación Pluralismo y Convivencia*  
Gorka Urrutia Asua  
*Deustuko Unibertsitatea*

Urtea eta lekua:: 2024, Bilbo

Argitaratzailea: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Dokumentazioa: Antonio Gómez  
*Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia*

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

Azaleko argazkia: Zoltan Tasi

ISBN: 978-84-9082-248-7



# AURKIBIDEA

<b>Aurkezpena</b> .....	<b>5</b>
<b>Metodologiaren inguruko oharra</b> .....	<b>7</b>
<b>1. Euskal gizartearen irekitasuna aniztasunari dagokionez</b> .....	<b>9</b>
1.1. Aniztasunaren inguruko jarrerak eta sinesteak .....	9
1.2. Diskriminazioarekiko jarrerak eta pertzepzioak .....	15
1.3. Erakundeek diskriminazio ezari begira egiten duten lanaren balorazioa, eskubideak eta erakundeak ezagutzea eta datuen sorrera .....	24
<b>2. Erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak</b> .....	<b>31</b>
2.1. Harremanak eta bizikidetza erlijio-aniztasunari dagokionez .....	31
2.2. Alderdi erlijioso eta kulturekiko jarrerak eta sinesmenak .....	37
2.3. Erlijio-askatasuna eta diskriminazioa .....	38
2.4. Erlijio-aniztasunaren kudeaketa eta gurtza- eta otoitz-zentroak .....	45
2.5. Erlijio-aniztasuna eta hezkuntza .....	49
2.6. Erlijio-aniztasunarekiko irekitasuna .....	53
<b>Ondorio orokorrak</b> .....	<b>77</b>
<b>Eranskinak</b> .....	<b>83</b>





# Aurkezpena

Txosten honek *Neurtu 2023. EAEko aniztasunari buruzko barometroa* inkestaren azterketaren emaitza nagusiak biltzen ditu. *Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerari buruzko 2020ko inkestak* (EPADE 2020) eta *Neurtu. EAEko aniztasunari buruzko barometroa* inkestaren aurreko edizioek (2021 eta 2022) irekitako bideari jarraitzen dio azterlan horrek. Inkesta horien bidez, EAEko biztanleek gizarte-errealitate anitzari dagokionez duten jarrera eta irekitasun-maila aztertzen dira, bai eta berdintasunarekiko eta diskriminaziorik ezarekiko duten konpromisoa ere.

Urtero egiten den *Neurtu* inkestaren helburua da EAEko biztanleek aniztasunari buruz (haren esparru guztietan) dituzten pertzepzioak eta jarrerak ezagutzea, eta horretarako, talde sozial eta kolektibo guztiei eragiten dieten errealitateak berariaz jorratu dira, euskal gizarteak horiei buruz duen pertzepzioari buruzko bloke espezifikoak barne. 2023ko edizio honetan, gizarteak EAEko erlijio-aniztasunari buruz dituen pertzepzioetan eta jarreretan oinarritu da inkesta.

Horren bidez, jakin nahi da, euskal gizarteak nola “arnasten” duen, oro har aniztasunari, eta zehazki, erlijio-aniztasunari buruz. Hau da, zer jarrera dituen euskal gizarteak, zer pertzepzio erabiltzen dituen bere irudimenean, eta, azken batean, zer jarrera hartzen duen pentsatzen, hitz egiten eta erlazionatzen denean erlijioaren batekin identifikatzen diren pertsonekin, bereziki erlijio hori gutxienena bada.

Horretarako, inkesta bat diseinatu da. Inkesta horrek, alde batetik, gizarte osoko aniztasuna eta diskriminazioa hautemateari buruzko hainbat alderdi biltzen ditu, eta, bestetik, sinesmen desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzari buruzko jarrerak eta pertzepzioak aztertzen ditu, aurreiritzia adierazteko hainbat modu –batzuk agerikoak, eta beste batzuk, berriz, sotilagoak– kontuan

izanik). Horri gagozkiola, jarreraren argazki finko bat izatea ahalbidetzeaz gain, jarrerak ikuskatzeko baliabidea ere bada zundaketa.

Era berean, ikerketa honen diseinuan eta emaitzen azterketan zorrotasun handiagoa lortze aldera, erlijio-aniztasunari buruzko ikerketan adituak diren bi pertsonak hartu dute parte: Puerto García Ortiz<sup>1</sup> eta Gorka Urrutia Asua<sup>2</sup>.

Egiturari dagokionez, bi bloke handitan antolatua dago txosten hau. Lehenengo blokean, EAEko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan dituzten jarrerak eta pertzepzioak jorratu dira. Beste atal bat ere badu, hainbat alderdi aztertzen dituena: herritarrek diskriminazioaren aurrean dituzten eskubideei buruz gizarteak duen ezagutza, bai eta eskubide horiek defendatzeko ardura duten erakunde eta mekanismo instituzionalei buruz duena ere, eta herritarrek egiten dituzten balorazioak tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan erakundeek egiten duten lan instituzionalari buruz. Bigarren blokea erlijio-aniztasunarekiko jarreretan eta pertzepzioetan oinarritu da, eta erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea hartzen du, gizarteko talde desberdinak kokatzen dituena.

Gainera, sarrera honen ondoren, egindako ikerketa-prozesuan aplikatutako metodologiari buruzko oharra sartu dugu, eta, amaitzeko, ondorio orokorren azken atala, non laburbilduta nabarmentzen baitira garrantzi eta interes sozial handieneko aurkikuntzak.

Azkenik, eranskin gisa, taula batzuk gehitu ditugu, identifikatutako erantzunetan dauden desberdintasun esanguratsuak zehazten dituztenak, txostenean azaldutako datu guztien arabera erregistratu diren aldagai soziodemografikoen arabera. Bestalde, txostenean beti azaltzen da emakumeen eta gizonen artean estatistikaren aldetik alde nabarmenak dauden ala ez.

Azkenik, esan behar da txosten honen asmoa ez dela inola ere egoera hermetiko edo ukaezina azaltzea; aitzitik, ebidentziak sortzen lagundu nahi du, euskal gizarteak erlijio-aniztasunarekiko dituen pertzepzioei eta jarrerei buruzko ikerketan eta jakintzan eztabaidarako eta sakontzeko lagungarri izan daitezen. Interes eta balio bereziko kontua da hori arlo horretan politika publikoak artikulatzeko, bai eta herritarrek errealitate sozioerlijiosoa ezagutu dezaten laguntzeko ere.

---

<sup>1</sup>Puerto García Ortiz: Pluralismo y Convivencia Fundazioko zuzendariordea eta programen, azterlanen eta eraginaren arduraduna.

<sup>2</sup>Gorka Urrutia Asua: soziologoa, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko irakaslea eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.



# Metodologiaren inguruko oharra

EAEko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan duten pertzepzioa aztertzeko, eta ikerketaren helburuekin bat, metodologia kuantitatiboa baliatzea erabaki dugu<sup>3</sup>. Erdi egituratutako galdera-sortaren teknika erabili dugu, eta eskura banatu ditugu galdetegiak.

EPADE 2020, María Ángeles Cea D’Ancona, Miguel S. Vallés eta Lorenzo Cachón autoreek, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (IMIO-CIS 2013 eta 2016) eta 2019ko EBko diskriminazioari buruzko Eurobarometroak egindako azterlanak oinarri hartuta, *ad hoc* galdetegi bat diseinatu dugu, eta aukera eman digu EAEko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioak eta iritziak kuantifikatzeko. Neurtu 2023 inkestaren galdetegia serie honen aurreko edizioetan (Neurtu 2022 eta 2021) oinarritua dago, eta bi bloke handi ditu.

Lehenengo blokean, EAEn dagoen aniztasunarekin lotutako gai orokorrak bildu dira, hala nola, zein gizarte-eredutan bizi nahi den edo zer gizarte-harreman izan nahi ditugun. Gizartean gertatzen den diskriminazioaren pertzepzioari buruzko

---

<sup>3</sup>Garrantzitsua da aipatzea inkesta tresna metodologikoa dela eta, beste edozeinek bezala, mugak dituela. Ikerketa sozialaren ikuspuntutik, frogatua dago inkestetan oinarritutako diseinu metodologikoak, adibidez, desiragarritasun sozialaren alborapen-arriskua duela. M<sup>a</sup> Ángeles Cea D’Anconaren hitzetan: “Desiragarritasun soziala eragin handiko isuria da inkestaren kalitatearen narriaduran, ausazkoa baino gehiago sistematikoa delako. Eskuarki, neurketa-akatsak areagotzearekin lotu da, inkestatuak ez baitu onartzen gizarteak «arbuia garriztat» jotzen dituen jokabide, jarrera edo iritzietan parte hartzen duenik. Gaitzespen edo arbuio soziala pairatzeko beldurrak zuzentasun politikoarekin edo desiragarritasun sozialaren aldeko erantzunak ematera eraman ohi du inkestatua, baina horrek ez du esan nahi emandako erantzuna inkestatuaren benetako sentimendua edo ustea denik”. Cea D’Ancona, M<sup>a</sup> Ángeles. (2009). “La compleja detección del racismo y la xenofobia a través de encuesta. Un paso adelante en su medición”. *Reis. REIS Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 125, 13-45. ISSN: 0210-5233 Eskuragarri hemen: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=99712084001>

galderak ere baditu galdetegiak, baita diskriminazioa pairatuz gero ditugun eskubideei eta erakundeek gauzatu behar duten jardunari buruz zenbateraino dakigun jakiteko galderak ere. Bigarren blokeak, aldiz, gai espezifikagoetan sakontzen du.

Hala, 2023ko edizio honetan, erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioen eta jarrerren bloke espezifikoa sartu da. Zehazki, erlijio katolikoarekin, ebanjelikoarekin / protestantearekin, ortodoxoarekin, musulmanarekin, budistarekin, juduarekin eta Jehovaharen lekukoekin lotutako pertzepzioak eta jarrerak jorratu dira.

Horretarako 1.200 inkestako lagina diseinatu da (% 95eko konfiantza-mailarako eta  $P=Q$ ; akatsa  $\pm 2,8$  da). Etxez etxeko inkesta pertsonala da, EAEn bizi diren 18 urtetik gorakoei egindakoa, eta aukeratutako laginketa esleipen sinplearen bidez geruzatutakoa izan zen, habitat-neurriaren, jatorriaren, adinaren eta sexuaren arabera kuotekin.

Ausazko ibilbideen sistemaren bidez hautatu ziren etxeak, 37 udalerritan (6 Araban, 16 Gipuzkoan eta 15 Bizkaian) banatutako 34 laginketa-puntutan. Azkenik, haztapen bat aplikatu da lurralde historikoaren arabera. Landa-lana 2023ko ekainaren 5etik uztailaren 7ra bitartean egin zen.

Azkenik, esan behar da ikerketa hau genero-ikuspegia kontuan izanik garatu eta analizatu dela. Ikuspegi horrek datu guztiak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zehaztuz aurkeztea ekarri du, alde horiek estatistikoki esanguratsuak izan zein ez<sup>4</sup>.

Erabilitako analisi-teknikei dagokionez, bi aldagaiko adierazgarritasuna duten datuen analisi estatistikoa aplikatu da ( $\chi^2$ ). Bestalde, erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea eratzeko, aldagai anitzeko datuak aztertzeke teknikak erabili dira (faktore-analisia, faktore baten ANOVA, segmentazio-zuhaitza eta AID edo Elkarreraginen Detektagailu Automatikoa).

---

<sup>4</sup>Genero-ikuspegiari dagokionez, inkestak egiteko irizpide "klasiko" batzuk ere aldatu dira; zehazki, sexua/generoa aldagaia hiru erantzun-aukerarekin jaso da (emakumea, gizona eta ez bitarra), baina azkenean inork ez du hirugarren aukera erantzun.



# 1

## Euskal gizartearen irekitasuna aniztasunari dagokionez


### Aniztasunaren inguruko jarrerak eta sinesteak

Epigrafe honetan, biztanleek gizarte-aniztasunarekiko zer jarrera duten aztertu dugu, kontuan hartuz jatorria, kultura-jarraibideak, erlijio-sinesmenak, gaitasunak, sexu-orientazioa eta nortasun sexu-generikoa.

### Askotariko gizartearen aurrean duten jarrera

Euskal gizartearen gehiengoak dio nahiago duela jatorriari, kulturari, erlijio-sinesmenari, sexu-orientazioari eta genero- edo sexu-identitateari dagokienez euren desberdinak diren pertsonekin bizi, alderdi horietan guztietan nagusiki homogenea den gizarte-ingurune batean bizi baino (% 76,9). Aldiz, hamarretik bik baino gutxiagok adierazi dute homogenezasuna nahiago dutela aniztasuna baino (% 16,6). Hirugarrenik, iritzirik eman nahi izan ez dutenak biztanleria osoaren % 6,5 dira (1. grafikoa).

1. grafikoa. Bizitzeko aukeratutako gizarte-mota (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

1.G. Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizarteetan bizi nahiko zenuke?

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

Aurreko urteetan egindako inkesten emaitzak kontuan hartzen baditugu (EPADE 2020 eta Neurtu 2021 eta 2022), ikusiko dugu aniztasunaren aldeko jarrera zazpi puntu jaitsi dela 2022arekiko (% 83,9 vs. %76,9), Baina goranzko joera ageri du 2020an<sup>5</sup> (% 65,6) eta 2021ean (% 73,9) jasotako ehunekoekin alderatuta. 2022an erregistratu zen balio bereziki handia sentiberatasun sozial orokor handiagoko testuinguruarekin lotu liteke —Ukrainako gerra bezalako krisi-egoeren eraginak markatua—, eta hori sumatu da atzerriko biztanleriarekiko pertzepzio eta jarrerei buruzko 2022ko Barometroan ere (2. grafikoa).

**2. grafikoa. Bizitzeko aukeratutako gizarte-mota (konparazioa): EPADE 2020<sup>6</sup>, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (%)**



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanak oinarri hartuta.*

*EPADE 2020: 1.G; Neurtu 2021: 1.G; Neurtu 2022: 3.G; Neurtu 2023: 1.G.*

<sup>5</sup>Aipatzekoa da EPADÉren landa-lana 2020ko urtarriletik uztailean egin zela, COVID-19ren pandemiak eragindako konfinamendua barne zela, eta baliteke horrek emaitzak okertu izana.


<sup>6</sup>2020. urtean egindako kontsultaren enuntziatua gainerakoetatik bereizten da, ez baitira berariaz aipatzen sexu-orientazioa eta sexu- edo genero-identitatea.

## Bizikidetzeta eta aniztasuna: pertsona ezagunak, adiskidetasun-harremanak eta familia-testuingurua

EAEko hamar biztanletik lauk baino gehiagok adierazi dute harreman handia edo nahikoa dutela atzeritar jatorriko pertsonekin (% 36,6) eta baliabide ekonomiko gutxi dituzten pertsonekin (% 32,2). Era berean, hamar biztanletik bi inguruk adierazi dute harreman handia edo nahikoa dutela sexu-orientazio ez heterosexuala duten pertsonekin (lesbianak, gayak eta bisexualak) (% 27,8), berea ez beste erlijio bateko pertsonekin (% 24,1) eta desgaitasunen bat duten pertsonekin (% 20). Bestalde, herritarren % 75,2k adierazi du ez duela trans pertsonarik ezagutzen, eta % 64,7k adierazi du ez duela ijitorik ezagutzen (3. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

3. grafikoa. Adiskidetasun-harremanak eta pertsona ezagunak (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

7.G. Zenbat lagun edo ezagun dituzu ezaugarri horiekin?

Halaber, ez da aldaketa nabarmenik izan beste urteekiko; joera orokorrak mantendu egin dira aldaketa txiki batzuekin (4. grafikoa).

**4. grafikoa. Adiskidetasun-harremanak eta pertsona ezagunak (konparazioa):  
EPADE 2020, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (baiezko erantzunen %)**



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanak oinarri hartuta.*

*EPADE 2020: 18.G; Neurtu 2021: 7.G; Neurtu 2022: 8.G; Neurtu 2023: 7.G. Zenbat lagun edo ezagun dituzu ezaugarri horiekin?*


Bestalde, herritarrei galdetu egin diegu zenbaterainoko erosotasuna sentituko luketen/duten euren alabak edo semeak beste pertsona batekin harreman sentimentala izango balu, pertsona horri dagozkion bizi-ezaugarrien eta -zirkunstantzien arabera, eta neurri gisa 1etik 10era bitarteko eskala hartuta 1 (erabat deseroso) izango litzateke, eta 10, berriz, (erabat eroso).

Hala, batez beste erosotasun handia erregistratu da, 7,5 puntu, pertsona hori zuria edo kaukasikoa izateari, gehiegizko pisua izateari edo obesitatea izateari, gaztea izateari, atzerritar jatorria izateari, erlijio katolikokoa izateari, atea izateari, desgaitasun fisikoa izateari, heterosexuala ez izateari (gay, lesbiana edo bisexuala) eta baliabide ekonomiko gutxi izateari dagokionez.

Eskalaren tarteko puntuan dago, batez beste 7,5 puntu baino gutxiagorekin eta 6,5 baino gehiagorekin, honako hauekin lotuta adierazitako erosotasuna: asiarra izatea, beltza izatea, prestakuntza txikia izatea, zaharra izatea, trans izatea, erlijio budista, ortodoxoa, judua edo ebanjelikoa izatea eta adimen-desgaitasunen bat izatea.

Batez besteko erosotasun-mailarik apalenak dituzten kategoriak honako hauek dira: erlijio musulmanekoa izatea (6,3), Jehovaren lekukoa izatea (6,2), Ijito Herriaren kide izatea (5,9) eta buruko gaixotasunen bat izatea (5,9) (5. grafikoa).

**5. grafikoa. Seme-alaba batek ezaugarri hauek dituen pertsona batekin harreman sentimentala izatearekin lotutako jarrera (batez besteko puntuazioa, 1: Ez da batere eroso, 10: Guztiz eroso).**



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

*9.G. Seme-alabarik izan ala ez, esan mesedez, 1etik 10erako eskalan, zenbateraino egongo zinatekeen eroso ala deseroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman sentimentala izango balu...*

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei dagokionez, emakumeek gizonek baino erosotasun-maila askoz handiagoa adierazi dute sexu-joera ez-heterosexualari, trans izateari eta gehiegizko pisua izateari dagokionez (2. eranskina).


## Aniztasunarekiko irekitasuna hezkuntzaren esparruan

Euskal gizarteak hezkuntza-esparruari dagokionez duen jarrerari helduz, nabarmendu behar da EAEko biztanle gehienak konforme daudela proposatutako esparruetan aniztasuna aintzatesteko informazioa ikastetxeetan hezkuntza-ikasgai gisa sartzearekin.

Aldeko jarrera oso zabala da, % 90etik gorakoa, desgaitasunari/aniztasun funtzionalari buruzko informazioa sartzeari dagokionez (% 91,4). Oso joera ona nabari da, halaber, % 80tik gorakoa, sexu- eta genero-aniztasunari eta jatorri etnikoari buruzko informazioa sartzeari dagokionez. Aldiz, adostasun-maila apur bat baxuagoak ikusten dira Ijito Herriaren historiari eta kulturari buruzko informazioa sartzeari dagokionez (% 67,5 ados), eta, azkenik, erlijioari edo erlijio-sinesmenei buruzko informazioa sartzeari (% 62,5 ados) dagokionez (6. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

6. grafikoa. Aniztasuna ikastetxeetan hezkuntza-ikasgai gisa sartzeari buruzko adostasun-maila (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

8.G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazitakoarekin:

Datuak aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu, nabari da, oro har, 2023an jaitsi egin dela kasu guztiei dagokien adostasun-maila. Jaitsiera hori nabarmenagoa da, hain zuzen ere, erlijio-sinesmenei eta Ijito Herriaren kulturari eta historiari buruzko informazioak sartzeari dagokionez. Era berean, ikusi da joera orokorrak mantendu egin direla aldaketa txiki batzuekin; 2023an, sexu-aniztasunari buruzko informazioak sartzeko adostasun-maila handiagoa da, esate baterako, jatorriari eta gutxiengo etnikoei buruzko informazioa sartzeko adostasun-maila baino (7. grafikoa).

**7. grafikoa. Hainbat alderdiri dagokienez aniztasunari buruzko hezkuntza-materialak sartzearekin ados eta oso ados dauden pertsonen ehunekoa (konparazioa): Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (%)**



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanak oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 9.G; Neurtu 2022: 9.G; Neurtu 2023: 8.G. Hezkuntza arloan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa eman behar da, eta zehazki, alderdi hauek landu behar dira:*

## Diskriminazioarekiko jarrerak eta pertzepzioak

Ondoren, diskriminazioarekiko jarrerari eta pertzepzioei buruz lortutako emaitzak erakutsiko ditugu. Garrantzitsua da argitzea, kasu honetan, euskal gizarteak orokorrean egoera edo testuinguru desberdinetan tratatu desberdina izateari buruz egiten dituen balorazioekin lotzen dela diskriminazioaren pertzepzio hori; horrek ez du zertan lotuta egon bakoitzak bizi izan duen esperientzia pertsonal zehatzarekin. Esperientzia pertsonal zehatzaren esparrua geroago jorratuko dugu, biztanleek lehen pertsonan ikusi eta sufritu dutela dioten diskriminazioa jorratzean.


Horrela, honako hauek azalduko ditugu: euskal gizarteak Euskadin gaur egun dauden arazo nagusiei buruz zer deritzon, diskriminazioak arazo sozial gisa duen garrantzia, diskriminazio handiagoa edo txikiagoa egotea esparruen arabera, diskriminazioa hainbat kategoriatan edo ardatzi jarraikiz, eta, azkenik, funtsezko bi esparruri buruzko diskriminazioa: lana eta etxebizitza.

## Diskriminazioaren pertzepzioa arazo gisa

EAEko hamar pertsonatik zortzik baino gehixeagok uste dute kolektibo jakin batzuetako pertsonetikiko diskriminazioa arazo garrantzitsu samarra dela gutxienez; biztanleen erdiak baino gehiagok (% 52,2), berriz, adierazi du diskriminazioa oso edo nahiko arazo garrantzitsua iruditzen zaiola. Aldiz, diskriminazioa garrantzi txikiko edo garrantzirik gabeko arazoa dela diotenak guztizkoaren % 17,3 dira (8. grafikoa).

Diskriminazioa arazo gutxienez garrantzitsu samarra dela uste duten pertsonen taldearen barnean, alde nabarmenak daude emakumeen eta gizonen artean, eta gizonak dira, emakumeak baino gehiago, diskriminazioa arazo garrantzitsu samarra dela diotenak. Izan ere, gizon bakar batek ere ez du adierazi diskriminazioa arazo oso garrantzitsua edo nahiko garrantzitsua dela (2. eranskina).


8. grafikoa. Kolektibo batzuen aurkako diskriminazioa euskal gizartearen arazotzat hartzea (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

3.G. Zure iritziz, kolektibo jakin batzuen bazterketa zenbateraino da euskal gizartearen arazo nagusietako bat?

9. grafikoa. Kolektibo batzuen aurkako diskriminazioa arazotzat hartzea (konparazioa): Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanak oinarri hartuta.

Neurtu 2021: 3.G. Neurtu 2022: 2.G; Neurtu 2023: 3.G. Zure iritziz, kolektibo jakin batzuen bazterketa zenbateraino da euskal gizartearen arazo nagusietako bat?




Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatuz gero, nabarmendu behar da 2023an jende gehiagok adierazi duela diskriminazioa arazo oso garrantzitsua edo nahiko garrantzitsua dela (9. grafikoa).

## Diskriminazioa zein esparrutan nabari den

Herritar gehienek uste dute Euskadin ez zaiela tratu bera ematen pertsona guztiei proposatutako esparruetan. Pertsonen ehuneko handienak adierazi du lan-esparrua dela tratu diskriminatzaile handiena ematen den esparrua (% 79,6). Horren ondoren, bizitegi-esparrua dago (etxebizitza alokatzea/erostea) (% 75,3), eta, gero, lege-esparrua (% 66,2). Era berean, herritarren erdiek baino gehiagok uste dute zerbitzu publikoak eskuratzeko orduan ere badaudela desberdintasunak, pertsonaren arabera (% 55,6) (10. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

10. grafikoa. Hautemandako diskriminazioa esparruen arabera (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

2.G. Zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?

Datu horiek aurreko edizioetan lortutakoekin alderatzean, ikus daiteke 2023an tratu diskriminatzailearen pertzepzioa jaitsi egin dela 2022koaren aldean, etxebizitza erosteko edo alokatzeko aukerari, legeen aplikazioari eta, bereziki, lau puntu baino gehiagoko aldearekin, zerbitzu publikoetarako sarbideari dagokionez (11. grafikoa).

### 11. grafikoa. Hautemandako diskriminazioa esparruen arabera (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (%)



*Iturria: Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanak oinarri hartuta.  
EPADE 2020: 2.G, 5.G, 7.G, 9.G; Neurtu 2021: 2.G; Neurtu 2022: 4.G; Neurtu 2023: 2.G. Zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?*

## Diskriminazioaren pertzepzioa hainbat ezaugarriren arabera<sup>7</sup>

Euskal gizartearen gehiengoaren ustez, ijitoen kontrako diskriminazioa oso edo nahiko hedatua dago Euskadin (% 71,4). Biztanleriaren ustez zabalduen dagoen diskriminazio-arrazoia da; horren atzetik, eta halako alde batekin, jatorri etnikoagatik (% 53,2) eta azal-koloreagatik (% 51,3) diskriminazioaren pertzepzioa dago, eta horien ondoren, trans pertsona izateagatik (% 50,4) eta buruko gaixotasunen bat izateagatik (% 49,3) diskriminazioa.

Beste muturrean, herritarrek uste dute gutxien zabalduen diskriminazioa dela erlijio-sinesmenengatik egiten dena, kasu horretan, % 19,5ek uste du zabaldua dagoela; % 32,9k uste du oso arraroa dela gertatzea, eta % 20k ez dagoela (serie osoko daturik altuena).


Erdiko mailan dago sexu-orientazioagatik (% 35,6), adinagatik (% 34,1) eta desgaitasuna izateagatik (% 32,6) egiten den diskriminazioa, bai eta emakume izateagatik (% 35,2) eta pertsona intersexuala izateagatik (% 30,7) gertatzen

<sup>7</sup>EAEko biztanleei egindako kontsulta honetan aurkezten diren ezaugarriak alde aurretik Estatuan (CISen ikerketak) nahiz Europan (Eurobarometroa) egindako beste inkesta batzuetan erabilitako zerrendetatik abiatuta hautatu dira.

dena ere. Kasu horretan, galdetutako pertsonen kopuru handi batek adierazi du ez dakitela erantzuten (% 19,9) (12. grafikoa).

Bestalde, gizonen emakumeei baino askoz gutxiago iruditzen zaie erlijio-sinesmenengatiko diskriminazioa oso edo nahiko zabaldua dagoela (2. eranskina).

12. grafikoa. Diskriminazio hedatuaren pertzepzio soziala (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

4.G. Esango zenidake, zure iritziz, arrazoi hauetan oinarritutako diskriminazioak zenbateraino dauden zabaldua Euskadin? Hauek dira aukerak: oso zabaldua, nahiko zabaldua, ezohikoa, oso ezohikoa eta ez da gertatzen.

Era berean, herritarrei galdetu zaie euren iritziz zer ezaugarri edo kategoriaren arabera izan daitezkeen diskriminatuak. Kontsulta hori bat-bateko erantzun moduan nahiz iradokita egin da (bigarren kasu horretan, kategorien zerrenda bat eman zaie hartatik aukeratzeko)<sup>8</sup>.


Hala, bat-bateko erantzunei dagokienez, ikus dezakegu atzerritar jatorrikoa izatea dela (% 46,9) herritarrek diskriminatuak izateko kategoria gisa gehien aipatu duten kategoria, eta, ondoren, halako alde batekin dago ijitoa izatea (% 27). Gutxien aipatu diren kategoriak, berriz, honako hauek dira, aipameneren % 3ra ez baitira iritsi: langabezian egotea, gehiegizko pisua edo obesitatea izatea, erlijio katolikoa izatea, gaztea izatea eta auzo degradatuan, pobreak edo baztertuan bizitzea.

<sup>8</sup>Entendemos por respuesta espontánea aquella en la que la persona encuestada responde de manera natural y sin darle ninguna opción de respuesta. En la respuesta sugerida, se le muestra a la persona encuestada una serie de opciones para que elija de ese listado.

Iradokitako erantzunen kasuan (aukeratzeko kategorien zerrendarekin), alderantzikatu egin da ordena, eta gehien aipatu den kategoria da ijitoa izatea (% 41), eta ondoren atzerritar jatorrikoa izatea (% 36,4). Gutxien aipatu diren kategoriak, aipamenen % 10 baino gehiago izan ez dituztenak, honako hauek dira: erlijio katolikoa izatea, gaztea izatea, langabezian egotea, gehiegizko pisua edo obesitatea izatea eta adineko pertsona izatea (13. eta 14. grafikoak).

Kasu horretan, estatistikaren aldetik alde nabarmenak daude emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeek identifikatu dute, neurri handiagoan, emakumea izatea diskriminazioa jasan dezakeen kategoria gisa (bai bat-bateko erantzunen kasuan, bai iradokitakoen kasuan); gizonek, berriz, gehiago identifikatu dute musulmana, judua edo katolikoa ez den beste erlijio batekoa izatea eta langabezian egotea (bat-bateko erantzunen kasuan) (2. eranskina).


### 13. grafikoa. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak (bat-bateko erantzuna, %)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

5.G. Zure ustez, zer ezaugarri izan daiteke kaltegarri pertsona batentzat, besteen pare tratatua ez izateko? (Gehienez ere 3 erantzun)

## 14. grafikoa. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak (iradokitako erantzuna, %)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

6.G. Aurrekoa kontuan izanik, zure ustez, pertsona batek zer ezaugarri izan behar ditu berdin tratatua ez izateko eta, beraz, kaltea pairatzeko? Adierazi, mesedez, hiru aukera.

Bestalde, ez da alde nabarmenik nabari aurreko urteetako datuekin alderatuta; joera orokorrek ez dute aldaketa handirik izan (1. taula).

**1. taula. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak (konparazioa): Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (iradokitakoa) (%)**

	Neurtu 2021	Neurtu 2022	Neurtu 2023
Ijitoa izatea	38,4	41,4	41,0
Jatorri atzerritarrekoa izatea	40,2	36,1	36,4
Transexuala edo transgeneroa izatea	20,5	21,2	23,3
Gaixotasun mentala izatea	11,1	17,4	20,4
Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea	24,4	17,0	19,0
Emakumea izatea	17,8	15,4	11,1
Baliabide ekonomiko gutxi izatea	18,4	13,6	25,7
Lesbiana, gay edo bisexuala izatea	11,5	11,3	10,2
Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizi izatea	10,3	9,3	15,3
Prestakuntza txikia izatea	7,8	8,9	12,9
Desgaitasun intelektuala izatea	5,2	7,4	12,5
Adinekoa izatea	9,4	7,3	9,1
Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea	6,9	6,5	5,8
Desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala izatea	9,2	6,5	10,9
Langabezian egotea	2,4	4,0	5,0
Gaztea izatea	1,9	1,6	1,9
Erljio katolikoko elizkoia izatea	0,5	0,2	0,5
Ed/Ee		0,7	0,4
Bat ere ez		9,8	5,3

*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanak oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 6.G; Neurtu 2022: 7.G; Neurtu 2023: 6.G. Aurrekoa kontuan izanik, zure ustez, pertsona batek zer ezaugarri izan behar ditu berdintzatua ez izateko eta, beraz, kaltea pairatzeko? Adierazi, mesedez, hiru aukera.*


## Jarrera diskriminatzaileak lan-esparruan

Biztanle gehienek (% 90 baino gehiagok) diote ez luketela jarrera negatiborik izango baliabide ekonomiko gutxi pertsonak, beste erlijio bateko pertsonak, sexu-joera ez-heterosexuala dutenak eta atzerritik datozenak kontratatzeke. Era berean, gehiengo dira (% 80 baino gehiago) adinekoa, trans eta desgaitasunen bat duen pertsona kontratatzeke eragozpenik ez dutela adierazi dutenak.

Prest egote mailak txikiagoak dira buruko gaixotasuna duen pertsona bat (% 72,2) eta ijito bat (% 68,8) kontratatzeke kasuan. Bestalde, hamarretik ia bik berriaz adierazi dute buruko gaixotasuna duen pertsona bat kontratatzea saihestuko luketela edo ez luketela kontratatuko; aldiz, hamarretik hiru inguruk (% 27) esan dute saihestu egingo luketela ijito bat kontratatzea edo ez luketela kontratatuko (15. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

15. grafikoa. Lan-kontrataziorako joera, gizataldeen arabera (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

10.G. Pertsona bat kontratatu beharko bazenu, eta prestakuntza- eta esperientzia-berdintasuna duten zenbait pertsona egotekotan, zein pertsona kontratatuko zenuke?


## Jarrera diskriminatzaileak etxebizitza-esparruan

Antzeko jarrera ikusi dugu etxebizitza-esparruko diskriminazioari dagokionez, baina diskriminaziorik ezaren aldeko ehunekoak ez dira hain nabarmenak. Hala, biztanleen % 80k baino gehiagok adierazi du etxebizitza alokatuko liokeela beste erlijio bateko pertsona bati, orientazio sexual ez-heterosexuala duenari, desgaitasunen bat duenari edo trans generoko pertsona bati.

Atzerritar jatorriko pertsonen kasuan, kontrataziorako joera positibo handiari kontrajarrita (% 90,5), aipatzekoa da, etxebizitza bat alokatu behar denean, % 79,5 dela alokairuan emango lioketela adierazi duten pertsonen ehunekoak. Bestalde, hamar pertsonatik bik adierazi dute ez lioketela etxebizitza bat alokatuko buruko gaixotasuna duen eta baliabide ekonomiko gutxi dituen pertsona bati. Azkenik, biztanleen % 44,5ek adierazi du ez liokeela etxebizitza alokatuko ijito bati (16. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

16. grafikoa. Etxebizitza alokatzeko joera, gizataldeen arabera (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

11.G. Alokatzeko etxebizitza bat izatekotan, pertsona hauei alokatuko nieke?

## Erakundeek diskriminazio ezari begira egiten duten lanaren balorazioa, eskubideak eta erakundeak ezagutzea eta datuen sorrera

Ondoren aipatuko dugu euskal gizarteak zenbateko ezagutza adierazi duen diskriminazio-egoerei aurre egiteko dituen eskubideei eta bere zerbitzura dauden erakunde publikoei buruz. Ildo beretik, azalduko dugu herritarrek nola baloratzen dituzten Euskadin berdintasunaren eta orokorki diskriminaziorik ezaren alde erakundeek egiten dituzten ahaleginak. Azkenik, diskriminazioarekin zerikusia duten ezaugarrirei eta bizi-inguruabarrei buruzko informazio pertsonal anonimoa biltzeari buruzko balorazioak aipatuko ditugu estatistiketarako.


### Eskubideei eta erakundeei buruzko ezagutza

Hamar pertsonatik hiruk baino gehixeagok adierazi dute badakitela zer eskubide dituzten diskriminazioaren biktima izanez gero, eta gehienek esan dute ez dakitela ezer ere horri buruz (% 60,9). Bestalde, % 1,2k adierazi du zerbait jakin dezakeela edo ez (ikus egin behar) eta % 1ek adierazi du ez dakiela edo nahiago duela ez erantzun (17. grafikoa).



Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

### 17. grafikoa. Diskriminazioaren biktimen eskubideei buruzko ezagutza (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

35.G. Ezagutzen dituzu zure eskubideak diskriminazio-biktima izanez gero?

Aurreko urteetako datuekin alderatuta, nabari da azken urtean nabarmen gora egin duela beren eskubideak zein diren badakitela adierazi duten biztanleen ehunekoak: bederatzi puntu baino gehiago 2022arekiko, eta hamalau puntu baino gehiago 2021arekiko (18. grafikoa).

### 18. grafikoa. Diskriminaziorik ez izateko eskubidea dagoela jakitea (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanak oinarri hartuta.

EPADE 2020: 45.G; Neurtu 2021: 21.G; Neurtu 2022: 26.G; Neurtu 2023: 35.G. Ezagutzen dituzu zure eskubideak diskriminazio-biktima izanez gero?

## Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko erakundeak eta organismoak ezagutzea

Gehienek adierazi dute Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea) ezagutzen dutela<sup>9</sup> (% 82,3). Bestalde, hamar pertsonatik bi inguruk adierazi dute badutela Ijito Herriaren Euskal Kontseiluaren<sup>10</sup> eta Berdindu zerbitzuaren<sup>11</sup> berri; eta hamar pertsonatik bat inguruk adierazi dute ezagutzen dituztela Migrazioarako Euskal Itun Soziala<sup>12</sup> eta Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa<sup>13</sup>. Azkenik, biztanleek % 7,1ek adierazi du ezagutzen duela Eraberean Sarea<sup>14</sup> (19. grafikoa).

19. grafikoa. Erakundeak eta organismoak ezagutzea (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

36.G. Entzun duzu hitz egiten honako hauei buruz?

<sup>9</sup> Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea) Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, eta hari dagokio berdintasunerako politikak diseinatzea, bultzatzea, aholkatzea, koordinatzea eta ebaluatzea, gizartea sentsibilizatzeaz gain Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasuna –benetakoa eta eraginkorra– lortzeko (informazio gehiago eskuragarri hemen:

<sup>10</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua Eusko Jaurlaritzan gizarte-gaietan eskumena duen sailari atxikitako aholkularitza-organoa da, honako helburu hauek dituena: partaidetza eta elkarrizketa bideratzea, ijitoen populazioaren asmoak eta eskaerak jasotzea, eta ijitoen populazioaren erabateko sustapena bultzatzeko proposamenak biltzea; hori guztia, partaidetza soziala, kontsulta, informazioa eta aholkularitza ahalbidetzeko, Administrazioaren jarduketan plangintzari dagokienez, jarduketa horien jarraipenari bide emateko (Ikus: 289/2003 Dekretua).

<sup>11</sup> Berdindu Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua da, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei (LGTBI kolektiboko pertsonen) eta haien ingurukoei informazioa eta arreta emateko jomuga duena. Hezkuntza komunitatearekin, eragile sozial eta profesionalekin, komunikabideekin –eta, oro har, gizarte osoarekin– ere egiten du lan, LGTBifobia desagerrarazteko eta, horrenbestez, LGTB kolektiboko pertsonen euren eskubide eta askatasunak erabat gauzatzeko dituzten oztopoak kentzeko (Informazio gehiago hemen: <https://www.euskadi.eus/zer-da-berdindu/web01-a2berdin/eu/>).

<sup>12</sup> Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren helburu praktikoa da migrazio-erronkari aurre egitea, Euskadiko hazkunde eta aurrerapen sozialaren prozesuaren zati gisa. Ikus: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/migrazioituna/es\\_def/adjuntos/ITUNA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/migrazioituna/es_def/adjuntos/ITUNA.pdf)

<sup>13</sup> Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa herri-administrazioen, gizarte-erakundeen eta etorkin-elkarteen arteko kontsultarako eta elkarrizketarako bide bat da, dagozkien gaietan (Ikus: Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa Sortzeko Dekretu proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen dion Agindua).

<sup>14</sup> Eraberean Eusko Jaurlaritzak bultzatutako sarea da, jatorri etniko edo nazionalagatiko, sexu-orientazioagatiko eta/edo sexu- eta genero-identitateagatiko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko. Eraberean Sarea Eusko Jaurlaritzak (Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren bidez) eta immigrazioaren, ijito herriaren eta LGTB kolektiboan esparruan lan egiten duten hainbat gizarte-erakunde osatzen dute (Informazio gehiago hemen: <https://www.euskadi.eus/erabereansarea/>).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

Aurreko urteetan lortutako datuekin alderatuta, aipatzekoa da 2022tik 2023ra nabarmen jaitsi dela Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroari buruz adierazitako ezagutzaren ehunekoa, eta, aldiz, puntu batzuk igo ditu Eraberean Sareari buruzko ezagutzak (2. taula).

**2. taula. Erakundeak eta organismoak ezagutzea (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (%)**

	EPADE 2020	Neurtu 2021	Neurtu 2022	Neurtu 2023
Emakunde	83,2	79,6	83,4	82,3
Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroa			25,4	9,5
Ijito Herriaren Euskal Kontseilua			23,4	20,8
Berdindu	13,5	15,8	15,2	19,8
Eraberean	2,7	4,3	3,8	7,1

*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanak oinarri hartuta.*

*EPADE 2020: 46.G; Neurtu 2021: 22.G; Neurtu 2022: 27.G; Neurtu 2023: 36.G. Entzun duzu hitz egiten honako hauei buruz?*

## Erakunde-esparrutik egiten den lanaren balorazioa

Herritarren erdiaren baina pixka bat gehiagoren iritziz, erakundeek ez dute ahalegin nahikoa egiten indarkeria matxista desagerrarazteko (% 54). Era berean, hamar pertsonatik lau inguruk adierazi dute erakundeek ez dutela ahalegin nahikoa egiten adinagatiko diskriminazioa desagerrarazteko.

Biztanleen % 50 inguruk uste dute erakundeek ahalegin nahikoa egiten dutela ijitoak erabat gizarteratzeko eta trans pertsonen diskriminaziorik eza bermatzeko.


Bestalde, herritarren % 55ek - % 60k adierazi dute erakundeek ahalegin nahikoa egiten dutela desgaitasunen bat duten pertsonak erabat integratzeko (% 55,6); emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzeko (% 56,8); lesbiana, gay eta bisexualak ez baztertzeko (% 58), eta etorkinen erabateko integrazioa lortzeko (% 60,1).

Azkenik, herritarren % 70,7k adierazi du erakundeek ahalegin nahikoa egiten dutela erlijio-sinesmen guztietako pertsonak beren fedea izan dezaten. Kasu honetan, planteatutako kasu guztien artean txikiena da (% 21,5) erakunde ahalegina gutxiegitzat hartzen duten pertsonen ehunekoa (20. grafikoa).

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei dagokienez, estatistikaren aldetik esanguratsuak diren aldeak daude indarkeria matxista desagerrarazteko

erakundeen ahaleginak baloratzean. Emakumeak dira erakundeekiko jarrera kritikoena adierazi dutenak, eta neurri handiagoan hartu dituzte gutxiegitzat erakundeen ahaleginak (2. eranskina).

## 20. grafikoa. Erakundeek berdintasunaren alde egiten dituzten ahaleginak nahikoak dira, esparruen arabera (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlanaren oinarri hartuta.

37.G. Zure iritziz, euskal erakundeak ahalegin nahikoa egiten ari dira honakorako...?

Datuen egoera orokorrak ez du ia aldaketarik izan aurreko urteekiko (3. taula).

## 3. taula. Erakundeek berdintasunaren alde egiten dituzten ahaleginak nahikoak dira, esparruen arabera (konparazioa): EPADE 2020, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 (baiezko erantzunen %)

	EPADE 2020	Neurtu 2021	Neurtu 2022	Neurtu 2023
Sinesmen erlijioso guztietako pertsonen beren fedea adierazi ahal izateko	68,3	63,3	73,0	70,7
Etorrinen integrazio osoa gizartean lortzeko	63,7	50,7	60,1	60,1
Desgaitasuna duten pertsonen integrazio osoa gizartean lortzeko	67,5	54,6	59,2	55,6
Gayak, lesbianak eta bisexualak diskriminatuak ez egoteko	63,8	48,3	57,6	58,0
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko	57,2	49,3	49,4	56,8
Transexualak edo transgeneroak ez diskriminatzeko	50,4	41,8	47,6	50,2
Indarkeria matxistarekin amaitzeko	49,7	32,5	40,5	39,8
Ijitoen erabateko inklusioa bermatzeko		42,0	40,4	50,1

Iturria: Geuk egina, Neurtu 2021, 2022 eta 2023 azterlanaren oinarri hartuta.

EPADE 2020: 47.G; Neurtu 2021: 23.G; Neurtu 2022: 28.G; Neurtu 2023: 37.G. Zure iritziz, euskal erakundeak ahalegin nahikoa egiten ari dira honakotako...?

## Informazio anonimoa erabiltzea datu estatistikoak sortzeko


Azkenik, edizio honetan, diskriminazioa jasan dezaketen ezaugarri eta bizi-inguruabarrei buruz informazio anonimoa erregistratzeari buruz zer iritzi duten ere galdetu diegu herritarrei, horri buruz datu estatistikoak sortzeko.

Biztanle gehienak (% 60 eta % 70 artean gutxi gorabehera) proposatutako ezaugarri pertsonalei buruz informazio anonimoa ematearen alde daude. Nabarmenezkoa da osasunari buruzko datuak ematearen aldeko jarrera (% 75,6), izan daitekeen desgaitasunen bati buruzko datuak ematearekin batera (% 73,8).

Bestalde, kontrako jarrera altuenak % 25 ingurukoak dira, eta larruazalaren koloreari (% 25,6), sexu-orientazioari (% 25,8) eta erlijio-sinesmenei (% 24,4) buruzko datuen erabilerari lotuta daude (21. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

### 21. grafikoa. Informazio anonimoa erabiltzea datu estatistikoak sortzeko (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

38.G. Errolda edo inkesta baten esparruan ezaugarri pertsonal hauei buruzko informazio anonimoa ematearen alde edo aurka zaude, Euskadiko diskriminazioari aurre egiteari dagokionez?



# 2

## Erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak


Txostenaren bigarren bloke honetan erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak jorratuko ditugu, eta erakundeek aniztasun hori nola kudeatzen duten azalduko dugu. Lehenik eta behin, erlijio-sinesmen eta -praktika desberdinetako pertsonekin izandako harremani eta bizikidetzari buruzko datuak partekatuko ditugu; jarraian, askotariko alderdi erlijioso eta kulturalen inguruan azaldutako jarrerak eta sinesteak aipatuko ditugu; ondoren, erlijio-askatasunari eta diskriminazioari buruzko datuak aztertuko ditugu. Azkenik, gurtza-zentroak eta otoitz-guneak ezartzearekin lotutako erlijio-aniztasunaren kudeaketari buruzko jarrerak aztertuko ditugu, eta erlijio minoritarioak dituzten pertsonetikiko adierazitako gizartearen irekitasuna zenbatekoa den azalduko dugu. Horretarako, azken atal gisa indize sintetiko bat sartu dugu, analisisan gehiago sakondu ahal izateko.

### Harremanak eta bizikidetzak erlijio-aniztasunari dagokionez

Herritarren ia erdiek uste dute Euskadin bizi diren erlijio minoritarioetako fededunak dezente direla (% 49,6), % 12,1ek uste du asko direla; beste % 26,5ek, berriz, uste du pertsona horiek gutxi direla eta % 1,3k, oso gutxi. Bestalde, biztanleen % 10,4k adierazi du ez dakiela edo ez duela iritzi argirik horri buruz (22. grafikoa).

Ikus daitekeenez, emakumeak baino nabarmen gehiago dira Euskadin bizi diren erlijio minoritarioetako fededunak gutxi edo oso gutxi direla dioten gizonak (2. eranskina).

## 22. grafikoa. Erlijio minoritarioetako fededunen proportzioari buruzko pertzepzioa (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

12.G. Zure ustez, gaur egun katolizismoaz bestelako zenbat fededun bizi dira Euskadin?

Era berean, herritarren erdiek, gutxi gorabehera, balorazio positiboa egin dute erlijio minoritarioetako pertsona fededunen presentziari dagokionez (% 50,8). Hala ere, hamarretik lau ingururi (% 43,8) ez zaie batere axola kontu hori, eta gutxi batzuek (% 4,3) berariaz adierazi dute negatiboki baloratzen dutela Euskadin erlijio minoritarioetako fededunak egotea (23. grafikoa).

Kasu honetan bai, alde handiak daude emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

## 23. grafikoa. Erlijio minoritarioetako fededunen presentziaren balorazioa (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


13.G. Jakingo duzunez, erlijio katolikoaz gain, beste erlijio-komunitate batzuk ere existitzen dira Euskadin. Nola baloratzen duzu erlijio gutxiengo horiek Euskadin duten presentzia?

Ikus daitekeenez, erlijio-aniztasunaren alde ageri da euskal gizartearen gehiengoa; % 15 baino gutxiago dira “hobe da pertsona guztiek erlijio-sinesmen berak izatea” ideiarekin esplizituki bat datozen pertsonak (24. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).



24. grafikoa. Erlijio-aniztasunarekiko jarrerak (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

16.G. Esan zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Gizartearentzat, hobe da pertsona guztiek erlijio-sinesmen berberak izatea.

Fededunekin adiskidetasuna izateari dagokienez, euskal gizartearen gehiengoak adierazi du badituela harremanak pertsona katolikoekin (% 98,4), eta herritarren erdiek baino gehiagok adierazi dute pertsona musulmanak ezagutzen dituztela edo lagun dituztela (% 62,7). Hamarretik hiruk baino pixka bat gehiagok adierazi dute badutela harremana pertsona ebanjelikoekin / protestanteekin (% 32,1) eta Jehovaharen lekukoekin (% 30,5). Gutxiago dira, biztanleen % 10 inguru, pertsona ortodoxoekin (% 12,1), budistekin (% 8,4) eta juduekin (% 8,1) harremana dutela diotenak (25. grafikoa).

Oro har, ez da emakumeen eta gizonen artean alde nabarmenik ageri, baina erlijio ortodoxoko fededun ezagun askoz ere gutxiago dituzte emakumeek (2. eranskina).

25. grafikoa. Lagun eta ezagun fededunak (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

14.G. Erlijio hauetako baten fededun den adiskide edo ezagunen bat ba al duzu Euskadin?


Batetik hamarrera bitarteko eskala erabilia, herritarrei galdetu diegu zenbaterainoko erosotasuna sentituko luketen euren alabak edo semeak beste pertsona batekin harreman sentimentala izango balu, pertsona horrek duen erlijio-jarreraren arabera, 1 (erabat deseroso) izango litzateke, eta 10, berriz, (erabat eroso).

Erosotasun-maila handia nabari da, bai pertsona katolikoa bada, bai ateoak bada (7,8 puntu, batez beste, bi kasuetan). Bestalde, adierazitako erosotasuna zertxobait apalagoa da, nahiz eta handia izaten jarraitzen duen (6,5 puntu baino gehiago, batez beste), pertsona budista, ortodoxoa, judua edo ebanjelikoa / protestantea bada.

Erosotasun-maila txikiak pertsona musulmana (6,25 puntu, batez beste) eta Jehovaren lekukoa (6,17 puntu, batez beste) izateko aukerari dagozkio. Hala ere, nabarmendu behar da adierazitako erosotasun-maila horiek kasu guztietan gainditzen dituztela batez beste 5 puntuak (26. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**26. grafikoa. Seme-alaba batekin norbaitekin duen harreman sentimentalekiko jarrera, erlijio-jarreraren arabera (%)**



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*


*9.G. Seme-alabarik izan ala ez, esan mesedez, 1etik 10erako eskalan, zenbateraino egongo zinatekeen eroso ala deseroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman sentimentala izango balu...*

Lan-espazioa partekatzeari dagokionez, batez beste 9 puntu baino handiagoa da pertsona katolikoekin partekatzeke erosotasuna (9,19 puntu); hala ere, erosotasun handia adierazi dute pertsona ebanjelikoekin / protestanteekin (8,78), budistekin (8,78), ortodoxoekin (8,76 puntu) eta juduekin (8,73 puntu) lan-espazioa partekatzeari dagokionez. Azkenik, erosotasunak batez beste 8 puntuak gainditzen jarraitu duen arren, puntuaziorik txikiena Jehovaren

lekukoan (8,48) eta pertsona musulmanen (8,47) kasuan aurkitu dugu (27. grafikoa).

Ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**27. grafikoa. Lan-espazioa pertsona erlijiosoekin partekatzeak sortutako erosotasuna, sinesmenen arabera (%)**




*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

*25.G. Lana ote duzun alde batera utzita eta 1etik 10era bitarteko eskala erabiliz, esan mesedez zein izango litzatekeen zure erosotasun-maila, baldin eta zure eguneroko lankideen artean honako erlijio hauetako bat praktikatzen duenik egongo balitz:*

Gizartearen gehiengoak adierazi du onartuko lukeela erlijio desberdinetako pertsonekin lan egitea eta ikastea (% 90,2), bai eta norberarena ez den erlijio bat duen pertsona euren nagusia izatea ere (% 89,9). Adierazi den onarpen-portzentajea ere gehiengo da, baina neurritsuagoa da planteatu denean norberaren erlijioa ez duten pertsona asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea (% 74,3k onartuko lukete, eta %19,6 saihesten saiatuko litzateke edo saihestu egingo luke) eta seme-alabak beste erlijio batzuetako familia fededunetatik datozen adin txikiko askok ikasten duten ikastetxe batera eramatea (% 72,7k onartuko lukete, eta %18,7 saihesten saiatuko litzateke edo saihestu egingo luke) (28. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

### 28. grafikoa. Norberarenak ez diren erlijio-sinesmenetako pertsonekin harremana izatearekiko jarrera (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

15.G. Zure eta zureak ez diren erlijio-praktika eta -sinesmenak dituzten pertsonen arteko harreman posible jakin batzuko azalduko dizkizut. Esan, mesedez, kasu bakoitzean honelako harreman bat onartzen ote duzun edo onartuko ote zenukeen, ala, aitzitik, saihesten saiatuko ote zinen edo ez zenukeen onartuko.

Bestalde, euskal gizarteak ez du jarrera espliziturik adierazi Jaurlaritzako lehendakariak erlijio-aukera bat edo beste izatearen alde edo kontra. Nabarmenezkoa da proposatutako erlijio-aukeretak edozein “ez ondo ez gaizki” iruditzen zaiela dioten pertsonen ehunekoa, eta nolabaiteko axolagabekeria adierazi dute horri dagokionez. Hala ere, muturrei erreparatzen badiegu, aukera katolikoaren aldeko jarrera nabarmendu da bereziki (% 45,2), eta gainerako kasuek ez dute % 27 gainditu. Azkenik, Jaurlaritzako lehendakaria pertsona fededuna izatearen aurkako aukeretan, nabarmendu behar da pertsona musulmana izatea (% 22,9 gaizki edo oso gaizki) edo Jehovaharen lekukoa izatea (% 19,7 gaizki edo oso gaizki) (29. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

### 29. grafikoa. Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren erlijio-aukerari buruzko balorazioak (%)



Fuente: Elaboración propia a partir de Neurtu 2023.


24.G. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki Eusko Jaurlaritzako lehendakaria ondorengo erlijio hauekiko batekoa izatea?

## Alderdi erlijioso eta kulturekiko jarrerak eta sinesmenak

Biztanleen erdiak baino gehiagok adierazi du erlijio-aniztasunak aberastu egiten duela Euskadiko kultura-bizitza (% 64), eta hamar pertsonatik batek baino gehixeagok, berriz, berariaz baztertu egin du ideia hori (% 12,3). Era berean, aipatzekoa da biztanleen ia % 20k ez duela horri buruz iritzirik eman (“ez ados, ez desados”) (30. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

30. grafikoa. Kultura-aberastasunari lotutako erlijio-aniztasunaren balorazioa (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


16.G. Esan zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Erljio-aniztasunak aberastu egiten du Euskadiko kultura-bizitza.

Erljioek balio matxistak irakasten ote dituzten aztertzeari dagokionez, iritzi nagusia da hala egiten dutela proposatutako erlijio ia guztiek, baina garrantzitsua da kontuan hartzea herritarren % 30 inguruk adierazi dutela ez dutela ezagutza aski beren jarrera azaltzeko honako erlijio hauen kasuan: erlijio judua (% 32,8), budista (% 38,1), Jehovahen lekukoak (% 29,8), ortodoxoa (% 36) eta ebanjelikoa/protestantea (% 29,3).

Erljioek balio matxistak irakasten dituztela uste izateari dagokionez, erlijio budistak izan du hori uste duten pertsonen ehuneko txikiena (% 37,9). Bestalde, alde horretatik, adostasun handia dago erlijio musulmanari (% 84,9) eta erlijio katolikoari (% 69,8) dagokionez, eta ondoren datoz Jehovahen lekukoak (% 54,9), erlijio judua (% 52,4), ebanjelikoa / protestantea (% 52,3) eta ortodoxoa (% 47,6) (31. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

31. grafikoa. Erlijioen eta balio matxisten arteko lotura (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


17.G. Ondoren aipatutako erlijioek balio matxistak sustatzen al dituzte? Adierazi, mesedez, zer deritzozun.

Erlijio-askatasuna eta diskriminazioa

Herritarren gehiengoak adierazi du erlijio-askatasunerako eskubidea bermatua dagoela Euskadin (% 81,8). Hala, % 59,5 ados daude baieztapen horrekin (% 22,3 oso ados), eta % 1,9 dira erlijio askatasunerako eskubidea ez dagoela bermatua esplizituki adierazi dutenak. Azkenik, % 12,4k ez dute iritzia eman (32. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

32. grafikoa. Erlijio-askatasunerako eskubidea bermatzeari buruzko balorazioa (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

16.G. Esan zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Euskadin erlijio-askatasunerako eskubidea bermatuta dago.

Biztanleen erdiak baino gehiagok ez dute uste fededunak beren erlijio-kidetza ezkutatzera behartuta daudenik arbuioa pairatzeko beldur direlako (% 60,3). Arbuioa pairatzeko beldur direlako fededunak beren erlijio-kidetza ezkutatzera behartuta daudela uste dutenak % 17 dira, eta % 15ek baino gehixeagok, berriz, ez du iritzia eman (33. grafikoa).

**33. grafikoa. Fededunek izan dezaketen gizartean baztertuak izateko beldurrari buruzko pertzepzioa (%)**




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

16.G. Esan zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Fededunek euren erlijio-kidetza ezkutatu behar dute, arbuioa pairatzeko beldur direlako

Pertsonak beren fedea leku publikoetan publikoki adieraztearen alde dago herritarren ia erdia (% 46,1); hamar pertsonatik hiru baino gutxixeago, berriz, aurka daude (% 27,6), eta % 19,2k ez du iritzia eman (34. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**34. grafikoa. Erlijioa leku publikoan adieraztearekiko jarrera (%)**




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

16.G. Esan zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Pertsonak euren fedea leku publikoetan (kaleak, plazak, parkeak) publikoki adierazteko aukera izan beharko lukete

Erlijio-sinesmenak eta -praktikak lan-betebeharrekin bateratzeko lanpostuan malgutasuna sustatzearekiko jarrerari dagokionez, ez da joera nabarmenik ikusi, eta anibalentzia da nagusi. Aipatzekoa da biztanleen % 20,3k ez duela iritzia eman. % 40,2 malgutasuna sustatzearen alde dago; % 31,2, berriz, oso desados dago (35. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**35. grafikoa. Lanpostuan malgutasuna sustatzearekiko jarrera, erlijio-sinesmenak eta -praktikak lan-betebeharrekin bateratzeko (%)**




*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

*16.G. Esan zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Lanpostuan malgutasuna sustatu behar da, enpleguaren erlijio-sinesmen eta praktikak eta duen lanpostuari dagozkion betebeharrak bateratze aldera.*

Lan-esparruan erlijio-aniztasunarekiko errespetua sustatzeari dagokionez, pertsona gehiago dira nahikoa egiten dela uste dutenak (% 36,9) kontrakoa uste dutenak baino (% 20,1). Oraingoan ere, nabarmentzekoa da iritzia ez ematea erabaki duten pertsonen ehunekoa (% 21,4) edo galderari erantzuten ez dakitela dioten pertsonen ehunekoa (% 21,4) (36. grafikoa).

**36. grafikoa. Lan-esparruan erlijio-aniztasunarekiko errespetua sustatzeari buruzko balorazioa (%)**



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

*16.G. Esan zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Lan-esparruan erlijio-aniztasuna errespetatzea sustatzeko adina ahalegin egiten dira.*

Emakumeek gizonak baino askoz gehiago baztertzen dute lan-esparruan erlijio-aniztasunarekiko errespetua sustatzeko nahikoa egiten dela dioen baieztapena (2. eranskina).


Lan-esparruarekin jarraituz, euskal gizartearen gehiengoak bai uste du belo islamikoa daramaten emakumeak baztertu egiten direla kontratatatuak izateko



garaian (% 67,8); aldiz, % 12,5 dira iritzi horrekin bat ez datozenak. Kasu horretan, % 13,1 dira iritzia ez ematea erabaki duten pertsonak. (37. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**37. grafikoa. Kontratuak izateko garaian belo islamikoa daramaten emakumeekiko arbuioaren pertzepzioa (%)**




*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

33.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Belo islamikoa daramaten emakumeak ez dira kontratatzen normalean

Aukera-berdintasunari dagokionez, euskal gizartearen gehiengoak berriaz adierazi du erakundeek pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatu behar dutela, haien erlijioa edozein dela ere (% 85,7). Aldiz, ia % 2 dira premisa horren aurka daudela dioten pertsonak. Ia % 10 dira iritzia ez ematea erabaki dutenak (38. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**38. grafikoa. Aukera-berdintasunak bermatzearen aldeko jarrera, erlijio-sinesmenak edozein direla ere (%)**




*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

16.G. Esan zenbateraino zauden ados edo desados hurrengo esaldien edukiarekin: Erakundeek pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatu behar dute, duten erlijioa edozein izanik ere.

Hamar pertsonatik ia zortzik uste dute erlijio-sinesmenekiko diskriminazioa ez dela oso hedatua Euskadin, % 32,9k uste baitute ez dela batere ohikoa eta % 24,8k ez dela ohikoa. Hala ere, diskriminazio-mota hori nahiko hedatua dagoela uste dutenak % 17,7 dira, eta oso hedatuta dagoela uste dutenak, berriz, % 1,8 bakarrik (39. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**39. grafikoa. Erlijio-sinesmenekiko diskriminazioaren hedapenari buruz gizarteak duen pertzepzioa (%)**




*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

*4.G. Esango zenidake, zure iritziz, arrazoi hauetan oinarritutako bazterketak zenbateraino dauden zabalduta Euskadin? Hauek dira aukerak: oso zabalduta, nahiko zabalduta, ez da ohikoa, ez da batere ohikoa eta ez da gertatzen.*

Berdin tratatua ez izateko pertsona bati zer ezaugarri kalte egin diezaioketen kontsultari dagokionez, erlijio katolikoa ez da kalte egin dezakeen ezaugarri gisa identifikatu (% 1,1 aipamen bat-bateko erantzunean), katolikoa ez den beste erlijio bat izatea tratu-desberdintasunari lotutako ezaugarri gisa aipatu da (% 11,7), eta seigarren lekuan dago zerrenda orokorrean. Joera hori areagotu egin da erantzuna bat-batekoa izan beharrean iradokia izan denean (hautatzeko aukeren zerrendarekin) (40. grafikoa eta 41. grafikoa) (ikus 13. eta 14. grafikoak ere).

Bat-bateko erantzunen kasuan, gizonek emakumeek baino askoz gehiago uste dute musulmanak, juduak edo beste erlijio minoritario batekoak izateak kalte egin dezakeela pertsona berdintasunez ez tratatzeko. Iradokitako erantzunen kasuan, estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

#### 40. eta 41. grafikoak. Erlijio-sinesmenengatik hautemandako diskriminazioa (bat-bateko erantzuna eta iradokitako erantzuna, %)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


5.G. Zure ustez, zer ezaugarri izan daiteke kaltegarri pertsona batentzat, besteen pare tratatua ez izateko? (Bat-bateko erantzuna)

6.G. Aurrekoa kontuan izanik, zure ustez, pertsona batek zer ezaugarri izan behar ditu berdin tratatua ez izateko eta, beraz, kaltea pairatzeko? (Iradokitako erantzuna)

Azkenik, biztanleen ia erdiek adierazi dute katolikoa ez den erlijio bateko fededun bati buruzko aipamen negatiboak edo zurrumurru negatiboak entzun edo ikusi dituztela (% 45,2), eta % 36,7k adierazi du isekak, txantxak, txistek, imitazioak edo keinuak entzun eta ikusi dituela. Bestalde, % 23,4k adierazi du irainak entzun edo ikusi dituela, eta % 16,2k adierazi du erlijio katolikoa ez den beste erlijio bateko pertsona fededun bat kontuan ez hartu, bakartu edo nolabait baztertu duten egoerak bizi izan dituela. Halaber, biztanleen % 10ek adierazi du ikusezintasun-egoerak (% 13), mehatxuak (% 12,3), eskola-jazarpena (% 11,7) eta eraso fisikoren bat (% 11,1) entzun edo ikusi dituela. Azkenik, biztanleen % 6,6k adierazi du laneko jazarpen-kasuren baten berri izan duela (42. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

42. grafikoa. Katolikoa ez den erlijio bateko fededunen kontra ikusitako diskriminazio- eta indarkeria-egoerak (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


34.G. A. Entzun edo ikusi al duzu noizbait katolikoaz bestelako erlijioen bateko fededun baten aurkako diskriminazio-egoerarik?

Lehen pertsonan izandako diskriminazio- edo indarkeria-bizipenei dagokienez, biztanleen % 1,8k adierazi du isekak eta aipamen negatiboak jasan dituela bere erlijio-sinesmenengatik. Herritarren % 1ek adierazi du arrazoi beragatik bizi izan dituela irainak (% 1,3), baztertzea (% 1,7), ikusezintasuna (% 0,8) eta eskola-jazarpena (% 0,9). Era berean, biztanleen % 0,5 inguruk dio laneko jazarpena (% 0,7), mehatxuak (% 0,7) eta erasoak (% 0,5) bizi izan dituela (43. grafikoa)<sup>15</sup>.

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

<sup>15</sup>Datu horiek EAEko biztanleria osoari dagozkio; hala, pertsona ez-erlijiosoek erantzunak (% 50,2 izanik) garrantzi handia hartzen dute. Pertsona erlijiosoek diskriminazio- eta indarkeria-egoeren bizipenei buruzko ezagutza zehatzagoa lortzeko, beharrezkoa izango litzateke berariazko azterlana egitea, biztanle horien erantzunak berariaz jasotzeko.

**43. grafikoa. Erlijio-sinesmenengatik lehen pertsonan jasandako diskriminazio- eta indarkeria-egoerak (%)**



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


34.G. B. Zuk zeuk zuzenean pairatu izan al duzu diskriminazio-egoera hauetakoren bat zure erlijio-sinesmenengatik?

## Erlijio-aniztasunaren kudeaketa eta gurtza- eta otoitz-zentroak

Euskadiko erlijio-komunitate guztiek beren gurtza-zentroak ezartzeko eskubidea izatearen alde daude herritar gehienak (% 80). Herritarren % 6,3k adierazi du alde horretatik desberdintasunak egitearen alde dagoela, eta erlijio-komunitate batzuek eskubide hori estalia izan behar dutela, baina beste batzuek ez. Bestalde, biztanleen % 9k adierazi du ez dagoela gurtza-zentroak ezartzeko eskubidearen alde, erlijio-komunitatea edozein dela ere (44. grafikoa).

Emakumeen adostasun-maila gizonena baino askoz ere handiagoa da erlijio-komunitate guztiek gurtza-zentroak ezartzeko eskubidea izateari dagokionez (2. eranskina).

**44. grafikoa. Gurtza-zentroak ezartzeko eskubidearekiko jarrera (%)**




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

18.G. Zure aburuz, Euskadin ditugun erlijio-komunitateek eskubidea al dute euren gurtza-zentroak ezartzeko (elizak, meskitak, tenpluak, etab)?

Erljio-komunitate guztiek beren gurtza-zentroak ezartzeko eskubidea izatearen aurka agertu diren pertsonen talde minoritarioaren barruan (guztizko biztanleen % 20 baino gutxiago), gehienek uste dute ez liratekeela onartu behar gurtza-zentro musulmanak (% 87,9), Jehovaharen lekukoenak (% 61,4) eta erlijio ebanjelikoaren / protestantearen zentroak (% 50,3). Talde minoritario horren % 40k baino gehixeagok uste du ez litzatekeela onartu behar gurtza-zentro juduak (% 47,2), budistak (% 45) eta ortodoxoak (% 43,2) irekitzea. Azkenik, biztanle horien % 4,8k adierazi du ez dagoela kultu katolikoko zentroak irekitzearen alde (46. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**45. grafikoa. Gurtza-zentroak sinesmenen arabera ezartzeari uko egitea (erlijioaren arabera eskubide hori bai murrizten duten pertsonen %)**




*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

*19.G. Zure ustez, zer erlijiori ez litzaioke baimenik eman beharko euren gurtza-zentroak irekitzeko?*

Gurtza-zentroen kokapenari dagokionez, herritar gehienek ez dute, a priori, eragozpenik adierazi zentro horiek jartzen diren tokiari dagokionez. Herritarren % 68,4 kultura-zentro berriak udalerriko edozein tokitan jartzearen alde dago. Aldiz, % 22,9k uste du zentro horiek leku periferikoetan kokatu beharko liratekeela, eta % 3k adierazi du, beren ustez, ez litzatekeela gurtza-zentro berriak inon ezartzeko baimenik eman behar (46. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

46. grafikoa. Gurtza-zentro berriak ezartzeko lekuarekiko jarrera (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

20.G. Zure ustez, non kokatu beharko lirateke erlijio-gurtzarako zentro berriak?

Erlijio-sinesmenen arabera alderdi dagokienez, bai eta hurbiltasunari dagokionez ere, galdetutako pertsonen erdiak, gutxi gorabehera, ados daude gurtza-zentroak beren bizilekutik gertu (“beren etxe ondoan”) irekitzearekin, baina betiere onartuagoak dira gurtza-zentro katolikoak badira (% 67,3). Bestalde, biztanleen laurdenak inguru nahiago luke gurtza-zentro horiek beste leku batean irekitzea, eta ez dute alde handirik azaldu erlijio-sinesmenen arabera. Azkenik, gurtza-zentrorik inon ez irekitzea nahiago luketela adierazi duten pertsonen ehunekoa % 16 ingurukoa da kasu guztietan, Eliza katolikoarenean izan ezik, aukera hori % 10,3koa baita (47. grafikoa).

47. grafikoa. Gurtza-zentroak irekitzeari buruzko jarrera, udalerrian duten kokalekuaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


21.G. Orain, hainbat gurtza-zentrori buruz galdetuko dizut, eta gustatuko litzaidake esatea ea zuri, pertsonalki, ez litzazukeen axolako etxe ondoan halako bat irekitzea, ea nahiago zenukeen beste leku batean irekitzea halakorik edo ea ez litzazukeen gustatuko horrelako gurtza-zentrorik inon irekitzea.

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

Inkestan galdetu zaien beste kontu bat izan da zer iritzi duten hilerrietan egiten den erlijio-aniztasunaren kudeaketaz. Hala, biztanleen % 45ek uste du hilerriak egokitu egin beharko liratekeela erlijio-aniztasunari erantzuteko, eta % 34,2k uste du ez litzatekeela inolako aldaketarik edo egokitzapenik egin behar. Bestalde, % 10,7k uste du hilerri berriak eraiki beharko liratekeela gutxiengo erlijioak dituztenentzat (48. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

48. grafikoa. Hilerriak erlijio-aniztasunari erantzuteko egokitzeko aukerarekiko balorazioa (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

22.G. Seguruuenik jada badakizunez, erlijio bakoitzak bere manu eta hileta-errituak ditu. Ondoren aipatuko dizkizudan moduetako zeinetan uste duzu egokitu beharko liratekeela hilerriak?

Tanatorioetan, aireportuetan, espetxeetan eta ospitale publikoetan erlijioa kudeatzeari dagokionez, herritarren % 50 inguruk adierazi du bat datorrela erlijio-sentsibilitate desberdinak hartzen dituzten gurtza-zentroak egotearekin tanatorioetan (% 52,5), espetxeetan (% 47,8) eta ospitale publikoetan (% 45,5). Aireportuen kasuan, zertxobait neurritsuagoa da (% 42) aukera horren alde egin duten pertsonen ehunekoa. Aitzitik, leku horietan otoitz-zentrorik ez lukeela egon behar uste duten pertsonak % 35 inguru dira ospitale publikoen eta espetheen kasuan, % 41,6 aireportuetan eta % 26 tanatorioetan. Azkenik, leku horietan erlijio bakoitzeko otoitz-zentro bat izatea aukeratu duten pertsonak % 10 eta % 15 bitartean daude, ehuneko hori handiagoa da tanatorioen kasuan (% 15,6) eta txikiena aireportuetan (% 10) (49. grafikoa).



#### 49. grafikoa. Tanatorioetan, aireportuetan, espetxeetan eta ospitale publikoetan otoitz-zentro mota desberdinak izateko jarrera (%)



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

23.G. Esan zer deritzozun ondoren adierazitako guneei buruz: erlijio bakoitzerako otoitz-zentro bat izan beharko lukete, sentsibilitate guztiak hartuko lituzkeen zentro komun bat izan beharko lukete, edo gune horietan ez da otoitz-zentrorik egon behar.


Aipatzekoa da gizonen baino askoz ere emakume gehiagok adierazi dutela erlijio-sentsibilitate desberdinetarako gurtza-zentro komunak izatearen alde daudela (2. eranskina).

## Erlijio-aniztasuna eta hezkuntza

Biztanleen ia erdiak ikastetxeetan erlijioa irakastearen aurka daude; izan ere, % 46,9k uste du eskola-curriculumetik kanpo egon behar duela erlijioak. Bestalde, herritarren laurdenak adierazi du irakaskuntza horren alde dagoela, baldin eta erlijioa ikasgaia derrigorrezkoa ez bada eta hartan ateratako nota espedientean jasotzen ez bada (% 26,9). Beste % 18,2 ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde dago (horri buruz inolako baldintzarik edo ñabardurarik gabe), eta, azkenik, % 7,1ek dio gai hori ez zaiola batere axola (50. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

### 50. grafikoa. Ikastetxeetan erlijioa irakastearekiko jarrera (%)




*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.  
26.G. Ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde edo kontra zaude?*

Ikastetxeetan (baldintzekin edo baldintzarik gabe) erlijioa irakastearen alde dauden pertsonen artean, gehiengoak (% 73,1) adierazi du erlijioa ikasgai eman beharreko edukiek Euskadin presentzia handiena duten erlijioen azterketa jorratu beharko luketela. Beste % 18,7k adierazi du, euren iritziz, irakasgai horrek erlijio katolikoaren ikasketa soilik landu beharko lukeela. Bestalde, % 6k gutxi gorabehera, adierazi du gai hori ez zaiola batere axola (51. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

### 51. grafikoa. Erlijioari buruzko eskola-irakasgai batean eman beharreko eduki-motari buruzko balorazioa (ikastetxeetan erlijioa ematearen alde dauden pertsona guztiekiko %)




*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.  
27.G. Ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde bazaude, zure ustez...*

Hezkuntza-esparruan erlijio-aniztasunarekin zerikusia duten beste gai batzuei dagokienez, herritar gehienek uste dute hezkuntza-sistemak bermatu egin behar duela irakasleen etengabeko prestakuntza erlijio-aniztasunari buruz (% 63), eta irakasleek erlijio minoritarioak izatearen alde daude halaber (% 55,7). Euskal gizartearen gehiengoak argi eta garbi gaitzesten du neskatoak eta mutikoak bereiztea (% 85,6). % 6 dira argi eta garbi horren alde agertu direnak (erlijio-sinesmenetan oinarrituta).

Biztanleen erdiak baino gehiagok adierazi dute erlijio-sineste bakoitzeko eskola propioak izatearen aurka daudela (% 56), eta hamarretik bi baino gehixeago, berriz, horren alde daude (% 21,2). Bestalde, irakasleek sinbologia erlijiosoa erabiltzeko edo jantzeko aukerari dagokionez, % 40 inguruk onartzen dute, eta,aldi berean, herritar gehienak ados daude beren seme-alabek eskola partekatzearekin katolikoa ez den erlijioa duten adingabeekin (% 63,9), bai eta ikaskideek sinbologia erlijiosoa jantzi eta erabiltzearekin ere (% 50,3) (52. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

52. grafikoa. Hezkuntza-esparruan erlijio-aniztasunari erantzuteko modu desberdineko jarrera (%)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

28.G. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?

Gizartearen gehiengoak onartzen du (% 62,3) eskolako jantokiko menua ikastetxeko ikasleen erlijio-beharren arabera egokitzea edo malgutzea. Ez da gauza bera gertatzen ebaluazio-aldiari (% 24,9), jarduera fisikoari eta pertsonen arteko harremanari (% 26,1) eta eskola-egutegiari eta jaiegunei (% 28,6) dagozkien aldaketak planteatzean (53. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

### 53. grafikoa. Eskolako dinamika eta jarraibide orokorrak erlijio-aniztasunari erantzuteko egokitzearen balorazioa (%)




Fuente: Elaboración propia a partir de Neurtu 2023.

29.G. Nola baloratzen duzu ikastetxeak ikasleen erlijio-premien arabera egokitu edo malgutu ahal izatea?

Azkenik, gehiengoak ados dago eskoletan erlijio-aniztasunari buruzko informazioa sartzearekin (% 62,5), baina % 22,2 ez dago ados (54. grafikoa). Hala ere, komeni da kontuan izatea adostasun-maila hori dela aniztasunari buruzko edukiak sartzeko proposatutako aukeren artean erregistratu den txikiena (ikus 6. grafikoa).

Estatistikaren aldetik ez da alde nabarmenik ageri emakumeen eta gizonen artean (2. eranskina).

**54. grafikoa. Ikastetxeetan erljio-aniztasunari buruzko informazioa sartzearreko jarrera (%)**




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

8.G. Txartel hau erabilia, esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazitakoarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3= ez ados ez aurka; 4= aurka; 5= erabat aurka): Hezkuntza arloan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa eman behar da, eta zehazki, alderdi hauek landu behar dira:

## Erljio-aniztasunarekiko irekitasuna

Erljioren batekin identifikatzen diren pertsonenganako sinpatia pertsonala neurritsua da. Otik (batere sinpatiarik ez) 10era (sinpatia handia) bitarteko eskala erabiliz, batez beste 5 puntu inguruko sinpatia-maila erakutsi da proposatutako erljio-sinesmen guztiekiko. Katolikoekiko sinpatia pixka bat nabarmentzen da, 6,41 puntu batez beste; aldiz, puntuazio neurritsuagoak izan dituzte pertsona musulmanekiko sinpatiak (4,98 puntu batez beste) eta Jehovaren lekuko diren pertsonenekiko sinpatiak (4,97 puntu batez beste) (55. grafikoa).

**55. grafikoa. Erljioren bat duten pertsonenekiko adierazitako sinpatia pertsonala, sinesmenen arabera (%)**



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


30.G. Esan, mesedez, Otik 10era bitarteko eskalan, ondoren aipatutako erljioetako batekoak diren pertsonek pizten dizuten sinpatia, kontuan hartuta 0 "batere sinpatiarik ez" izango litzatekeela eta 10, berriz, "sinpatia handia".

Emakumeek gizonek baino sinpatia-maila askoz handiagoa adierazi dute erlijio katoliko, ebanjeliko edo protestanteari, ortodoxoari, budistari eta Jehovahen lekukoei dagokienez (2. eranskina).

Tolerantziari buruz galdetu zaienean, bi puntu inguru igo da puntuazioen batez bestekoa, eta 7 eta 8 puntu bitartean ibili da. Adierazi den tolerantzia pertsonal handiena katolikoei dagokiena da oraindik ere (8,06 puntu batez beste), eta txikienak, berriz, Jehovahen lekukoak direnei dagokiena (7,15 puntu batez beste) eta musulmanei dagokiena (6,99 puntu batez beste). Tarteko tolerantzia-mailan dabilta erlijio budista (7,63 puntu batez beste), ebanjelikoa / protestantea (7,59 puntu batez beste), ortodoxoa (7,58 puntu batez beste) eta judua (7,53 puntu batez beste) (56. grafikoa).

Emakumeek gizonek baino tolerantzia-maila askoz handiagoa adierazi dute erlijio budistaren eta Jehovahen lekukoen kasuetan (2. eranskina).

**56. grafikoa. Erlijioen bat duten pertsonetikiko adierazitako tolerantzia pertsonala, sinesmenen arabera (%)**



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*


*31.G. Erlijio hauetakoren bat duten pertsonetikiko tolerantzia-eskala batean, non kokatuko zinateke, kontuan izanik 0 "erabat intolerantea" eta 10 "erabat tolerantea" izango litzatekeela?*

Herritarrek uste dute erlijio minoritarioak dituzten pertsonetikiko tolerantzia sozial orokorra txikiagoa dela euren tolerantzia pertsonala baino. Hala, erlijio-sinesmen desberdinetako pertsonetikiko tolerantzia sozialari buruz galdetu zaienean, Otik (erabat intolerantea) 10era (erabat tolerantea) bitarteko eskala erabiliz, tolerantzia-maila apalagoak ageri dira erlijio minoritarioen kasuan, 5,5 eta 6,7 puntu artean batez beste, eta ez da alde handirik nabari erlijio-sinesmenen arabera.

Bestalde, tolerantzia pertsonalaren kasuan adierazitakoaren oso antzekoa da pertsona katolikoekiko erakutsitako tolerantzia sozialaren maila (batez beste 8 puntu) (57. grafikoa).

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei dagokienez, gizonek erlijio juduarekiko duten tolerantzia sozialaren maila askoz handiagoa da emakumeek adierazi dutena baino (2. eranskina).

**57. grafikoa. Erlajioren bat duten pertsonekiko adierazitako tolerantzia soziala, sinesmenen arabera (%)**



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

*32.G. Bestalde, erlijio hauetakoren bat duten pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, non kokatuko zenuke zuk euskal gizartea, kontuan izanik 0 "erabat intolerantea" eta 10 "erabat tolerantea" izango litzatekeela?*

Gizarte osoak erlijio-aniztasunari dagokionez duen irekitasuna xeheago eta zehatzago aztertzeko, Erlijio-aniztasunerako irekitasunaren euskal indizea izeneko indize sintetikoaren inguruko emaitzak aurkeztuko ditugu hurrengo atalean.

## Erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea

Gure gizartean gero eta handiagoa den erlijio-aniztasunari buruz euskal biztanleek dituzten jarrerak laburbiltze aldera, indize sintetiko bat egin dugu, galdetutako pertsona bakoitzak, bereziki, eta gizarteak, oro har, erlijioari eta erlijio-aniztasunari dagokienez duen irekitasun-, malgutasun- eta tolerantzia-maila laburbiltzen (neurtzen) duena.

Indize sintetikoa lortzeak, gainera, aukera ematen du modu sinplean monitorizatzeko euskal biztanleek, oro har, eta gizarte-politiketarako interesgarriak diren zenbait segmentuk dituzten jarrerak denboran zehar izan dezaketen bilakaera.

Indize horri erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea deitu diogu, eta galdetutako pertsona bakoitzak inkestako 41 itemi emandako erantzunetan oinarritu da, balio bakarrean laburbiltzen da, eta 0 eta 100 puntu artean mugitzen da. Beraz, 0 puntutik hurbil dauden puntuazioek jarrera, postura, jokabide eta portaera erabat intoleranteak, itxiak eta baztertzailak adieraziko lituzkete,

eta 100 puntutik hurbil dauden puntuazioek, berriz, jarrera guztiz irekiak, tolerantzak eta inklusiboak Euskadin erlijioarekiko eta erlijio-aniztasunarekiko.

Jarreraren azterketan diseinu kuantitatiboak mugak dituela jakinda ere, oso ezaguna da, gizarte-zientzien ikerketaren ikuspuntu metodologikotik begiratuta, literatura zientifiko aberatsa dagoela neurketa-eskalak egiteari eta garatzeari buruz<sup>16</sup>. Hemen aurkezten duguna bezalako indize sintetikoa egiteak, jarrerak inkesta bidez neurtzeko tradizioarekin jarraitzen du, eta abantaila nabarmenak ditu: zenbakizko neurketa jakin bat ahalbidetzen digu (puntuazioa ematea), aldagaien artean erlazio esanguratsuak hautematen laguntzeaz gain, baita profilak, segmentuak eta tipologiak ezartzea, eta horien osaera kuantifikatzea ere, aztertu beharreko fenomenoak denboran izandako bilakaera monitorizatzen laguntzen digula ahaztu gabe.

Indize kuantitatiboa eraikitzeak honako birtualtasun hau du: informazio asko lantzeko eta laburtzeko aukera ematen du, portaera iragartzeko aldagaiak hautematen ditu (aldagai bereizleak), posizio eta jarrera bereizgarriari lotutako tipologia soziodemografikoak ezartzen ditu eta etorkizunean izango duen bilakaeraren luzetarako jarraipena egiteko aukera ematen du.

Horrela, indizeak puntuazio bat eman dio inkestan parte hartu duen pertsona bakoitzari, eta, aldi berean, euskal gizarteak, oro har, duen jarrera laburbildu da 0tik 100 puntura doan eskalan. Gure asmoa ez da puntuazio horrek zehatz-mehatz azaltzea gizarteak erlijioaren eta erlijio-aniztasunaren aurrean duen jarrera, baina esan dezakegu jarrera horren estimazio erreala dela (tresnaren baliozkotasuna). Eta, gainera, esan dezakegu tresna hori hurrengo urteetan modu jarraituan erabiliz gero, fenomenoaren bilakaera ezagutzeko aukera emango digula (tresnaren fidagarritasuna).

Laburbilduz, uste dugu, Neurtu 2023 inkestako 41 itemetan oinarritutako indize hori nahikoa baliagarria dela EAEko biztanleek Euskadiko erlijio-aniztasunarekiko duten posizioa eta jarrera une jakin batean neurtzeko (zeharkako neurketa), eta tresna fidagarria etorkizuneko bilakaera monitorizatzeko (luzetarako neurketa).

Irekitasun-indize hori egiteko, honako urrats hauek egin ditugu:

1. Aldagai adierazgarriak hautatzea: hasiera batean, inkestako 69 aldagai aukeratu genituen, galdetutako pertsonen erlijioari eta erlijio-aniztasunari buruz dituzten jarrerak, sinesmenak, posturak eta/edo portaerak jasotzen zituztenak.

---

<sup>16</sup>Jarrerak metodologia kuantitatiboaren bidez neurtzearekin lotutako gizarte-zientzietako literatura zientifikoan, adibide asko ditugu jarrera-eskalak egiteko, eta, horien artean, nabarmentzekoak dira honako hauen ekarpenak: Likert (batuketa-eskala), Thurstone (tarte itxuraz berdinen eskala), Osgood (diferentzial semantikoa) edo Guttman (eskalograma).



2. Aldagaiak birkodetzea: behar zuten aldagaiak birkodetu genituen, zentzu berean neur zezaten.
3. Arakatzeko-osagai nagusien faktore-analisen segida bat aplikatzea<sup>17</sup> Neurtu 2023 datu-baseari. Lehen faktore-analisi horiek arakatzeko asmoz aplikatu ditugu, haien xedea baita aldagai errepikakorrak identifikatzea, beste aldagai batzuekin lotura nahikoa ez dutenak faktoreak edo alderdiak (konstruktua) sortzeko eta/edo bereizketa txikia eragiten dutenak, halakoak baztertzeko. 41 aldagairekin geratu gara azkenean.
4. Osagai nagusien lehen faktore-analisia aplikatzea, berrespen gisa. Lehen faktore-analisi berresle horretan oinarrituta, pertsona batek erlijio-aniztasunaren errealitate sozialarekiko duen jarreraren barne-egitura osatzen duten sei faktore edo alderditara murriztu genituen 41 aldagai horiek.
5. Osagai nagusien bigarren faktore-analisia aplikatzea, bigarren mailakoa, aurreko analisisan ateratako sei dimentsioei. Faktore-analisi horren bidez, inkestan parte hartu duen pertsona bakoitzak erlijio-aniztasunarekiko duen jarreraren alderdi horietako bakoitzak duen pisua hierarkizatu eta haztatu ahal izan genuen.
6. Erljio-aniztasunarekiko irekitasunaren indize partzialak eta indize sintetikoa kalkulatzeko. Kasu bakoitzak faktore bakoitzarekin dituen faktore-puntuazioetatik abiatuta, hau da, hautemandako sei eremu edo alderdietako bakoitzeko mailatik edo jarreratik abiatuta, indize partzialak kalkulatu ditugu eta, faktore bakoitzak azaldutako bariantza osoan duen pisan oinarrituta, indize sintetiko globala kalkulatu dugu.

Osagai nagusien analitik ondorioztatu da EAeko biztanleek erlijio-aniztasunarekiko duen jarrera funtsezko sei alderditan oinarritzen dela:

1. Gurtza-lekuekiko tolerantziaren alderdia: EAeko biztanleak gehien bereizten dituen alderdia da (bariantza edo aldakortasun handiena dagokio) eta erlijio-sinesmen desberdinetako gurtza-lekuen kokapenari dagokionez, etxetik gutxi-asko hurbil (NIMBY efektua) dituzten jarrerak eta posizioek osatzen dute, edo, zuzenean, irekitzeko aukera ukatuz. Alderdi

---

<sup>17</sup>Arakatzeko-osagai nagusien lehen faktore-analisi horren bidez, aldagai jakin batzuk ezabatu eta araztu nahi izan ditugu, hala nola aldagai errepikakorrak; gainerakoekin alderdietan taldekatzeko behar besteko loturarik ez dutenak; ateratako faktoreengatik behar bezala azaldu edo jaso gabeko aldakortasuna dutenak; edo aldakortasun txikia –hots, bereizketa-gaitasun txikia– dutenak. Hala, azterketan barne hartutako 69 aldagaietako 28 baztertzea erabaki genuen, irudiaren aurkako korrelazio-koefizienteetan nahi ez diren balioak zituztelako, laginaren egokitzapen-neurria (MSA) kalkulatzeko banan-banan lortutako balio baxuak eta/edo komunalitate txikiak dituztelako, edo hautatutako beste aldagai batzuekin informazio errepikakorra ematen dutelako.

horri EAEko biztanleen artean gertatzen den guztizko aldakortasunaren % 39,98 dagokio.

2. Erlijio-aniztasunarekiko enpatiaren alderdia: EAEko biztanleek erlijio desberdinetako pertsonetikiko erakutsi dituzten jarrera eta sinpatia- edo antipatia-maila jasotzen ditu. Bariantza osoaren % 16,38 hartzen du alderdi honek.
3. Erlijio-aniztasunarekiko tolerantziaren dimentsioa familia-esparruan: seme edo alaba batek zenbait erlijiotako pertsona batekin harreman sentimentala izango balu EAEko biztanleek duten jarrerarekin eta iritziarekin du zerikusia alderdi honek. Bariantza osoaren % 13,70 hartzen du alderdi honek.
4. Erakundeen erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren alderdia: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria beste erlijio batekoa izango balitz, egoera hori gehiago ala gutxiago onartzeari begira EAEko biztanleek adierazitako jarrera biltzen duten itemek osatzen dute alderdi hau. Aldakortasun osoaren % 11,99 hartzen du alderdi honek.
5. Erlijio-aniztasunarekiko tolerantziaren alderdia lan-esparruan: EAEko biztanleek beren eremu pertsonala erlijio desberdinetako pertsonekin lan eginez partekatzeke erakutsi duten jarrera jasotzen du alderdi honek. Bariantza osoaren % 9,54 hartzen du.
6. Erlijio-aniztasunak dituen beharrei hezkuntza-esparruan erantzuteko malgutasunaren alderdia: erlijio-aniztasunari erantzuteko ikasgeletan aldaketa edo egokitzapen batzuk egitea onartzeko prest egongo liratekeen galdetuta EAEko biztanleek erakutsi dituzten jarrerez eta iritziez hitz egiten digu alderdi honek. Eskolako menuetan, eskola-egutegian eta jaiegunetan, jarduera fisikoan eta pertsonen arteko harremanetan eta ebaluazio-aldian aldaketak egiteaz ari gara. Aldakortasun osoaren % 8,39 hartzen du faktore honek.

Bigarren mailako osagai nagusien faktore-analisiari esker, alderdi horiek haztatu ahal izan ditugu erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren indize sintetikoa lortzeko (ikus 58. grafikoa). Sei alderdietako bakoitza osatzen duten aldagaien zerrenda osoa dago eranskinean.

58. grafikoa. Erljio-aniztasunarekiko irekitasunaren indizearen alderdiak 2023

Erljio-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea 2023

Gurtza-lekuekiko tolerantzia	Erljio-aniztasunarekiko tolerantzia	Erljio-aniztasunarekiko tolerantzia familiar	Eraikundeen erljio-aniztasunarekiko irekitasuna	Erljio-aniztasunarekiko tolerantzia lan-esparruan	Erljio-aniztasunaren beharrei hezkuntza-esparruan erantzuteko malgutasuna
<b>% 39,98</b>	<b>% 16,38</b>	<b>% 13,70</b>	<b>% 11,99</b>	<b>% 9,53</b>	<b>% 8,39</b>
21.G._1 Eliza katolikoa etxe ondoan	30.G._1 Sinpatia erljio katolikoa	9.G._1 Semeak/alabak bikote judua	24.G._1 Lehendakari katolikoa	25.G._1 Langile katolikoa	29.G._1 Jantokiko menua egokitu
21.G._2 Eliza ortodoxoa etxe ondoan	30.G._2 Sinpatia erljio ebanjelikoarekiko/protestantearekiko	9.G._2 Semeak/alabak bikote musulmana	24.G._2 Lehendakari ebanjeliko/protestantea	25.G._2 Langile ebanjeliko/protestantea	29.G._2 Jaiak egokitu
21.G._3 Jehovaren lekukoaren erresumako aretoa etxe ondoan	30.G._3 Sinpatia erljio musulmanarekiko	9.G._3 Semeak/alabak bikote budista	24.G._3 Lehendakari musulmana	25.G._3 Langile musulmana	29.G._3 Jarduera fisikoa egokitu
21.G._4 Meskita/Otozleku musulmana etxe ondoan	30.G._4 Sinpatia erljio ortodoxoarekiko	9.G._4 Semeak/alabak bikote katolikoa	24.G._4 Lehendakari ortodoxoa	25.G._4 Langile ortodoxoa	29.G._4 Ebaluazioaldia egokitu
21.G._5 Eliza ebanjeliko/protestantea etxe ondoan	30.G._5 Sinpatia Jehovaren lekukoaren erljioarekiko	9.G._5 Semeak/alabak bikote ortodoxoa	24.G._5 Lehendakari Jehovaren lekukoa	25.G._5 Langile Jehovaren lekukoa	
21.G._6 Zentro budista etxe ondoan	30.G._6 Sinpatia erljio budistarekiko	9.G._6 Semeak/alabak bikote protestantea etxe ebanjelikoa	24.G._6 Lehendakari budista	25.G._6 Langile budista	
21.G._7 Sinagoga judua etxe ondoan	30.G._7 Sinpatia erljio juduarekiko	9.G._7 Semeak/alabak bikote Jehovaren lekukoa	24.G._7 Lehendakari judua	25.G._7 Langile judua	
		9.G._8 Semeak/alabak bikote atea	24.G._8 Lehendakari atea		

Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


Indize sintetikoaren balioa lortu ondoren, erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea kalkulatzeko lehen urte honetan, euskal gizartea 64,05 puntura iritsi da, 0 puntutik 100 puntura bitarteko eskalan. Gure ustez, bitarteko balioa da, hau da, euskal gizarteak gure inguruneko erlijio-aniztasun gero eta handiagoarekiko duen jarrera positibo samarra, irekia, malgua eta inklusiboa dela adieraziko luke. Zalantzarik gabe, jarrera horiek hobetzeko tartea badago, baina egia da, halaber, positiboa dela EAEko biztanleria osoaren jarrera.

Gainera, lortutako balioa bateragarria da euskal biztanleek beste aniztasun batzuekiko duten jarrera ezagutzeko Ikuspegik egiten dituen beste indize batzuek eskaintako balioekin. Honako hauei buruz ari gara:

- Euskal gizarteak jatorri atzerritarreko pertsoneri dagokienez duen tolerantziaren indizea, 2007az geroztik urtero kalkulatzeko dena. 2023an 66,36 puntu izan zituen.
- Aniztasunarekiko irekitasunaren indizea, 2020an egina Ikuspegik 2020an aniztasunari eta diskriminazioari buruz egindako inkestan lortutako datuetan oinarrituta. Indize horren helburua biztanleria kokatzea zen, mota guztietako aniztasunarekiko pertzepzio, balorazio, jarrera eta iritziei dagokienez. Indize horrek 72,78 puntuko balioa eman zuen.
- LGTBI pertsonetako irekitasunaren indizea 2021, EAEko biztanleek kolektibo horrekiko duten jarrera neurtzen duena. Lehen inkestan eta indize sintetikoarekiko lehen hurbilketan, 75,77 puntuko balioa lortu zuten EAEko biztanleek.
- Gizarte-errealitatearekiko eta ijitoekiko irekitasunaren indizea 2022 azterlanak, EAEko biztanleek ijitoekiko dituzten jarrerak neurtzen dituenak, 54,36 puntuko balioa izan zuen.

Kalkulatu dugun indizearen bidez neurtutako erlijio-aniztasunarekiko duten jarrerari dagokionez, EAEko biztanleen banaketa ez dator bat kurba normalarekin. 59. grafikoan ikus dezakegunez, badirudi hiru moduko portaera duela banaketa horrek. Estatistikoki, banaketak estatistiko modalaren balio bakarra badu ere (90,15 puntu), hiru banaketa ditu batean gainjarriak: lehenengoa, txikiena, grafikoaren ezkerreko muturrean, 25 puntu inguruko puntu modalarekin (maiztasun handiagoa); bigarrena, berriz, pixka bat ugariagoa da eta 50 puntu inguruko puntu modala du; eta, azkenik, hirugarrena, ugariena, aipatu dugun puntu modalarekin, 90 puntu inguru.

## 59. grafikoa. Erljio-aniztasunarekiko irekitasunaren indizearen (2023) balioa



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.


Indize sintetiko globalarekin lortu dugun informazioaz gain, pertsona bakoitzak eta euskal gizarte osoak jarrera orokorra osatzen duten sei alderdien inguruan lortu dituen puntuazioak ere baditugu. Hau da, zehaztu dezakegu zein alderditan diren irekiagoak, toleranteagoak eta inklusiboagoak euskal gizartearen jarrerak eta iritziak, eta beste zein alderditan diren jarrera eta iritzi horiek itxiagoak, intoleranteagoak edo baztertzailagoak.

EAEko biztanleek sei alderdi horietan duten jarrera erakusten digu 60. grafikoa. Bertan ikus ditzakegu EAEko biztanleek alderdi bakoitzean zer balio lortu dituzten. Kontuan izan behar da indize partzialetan puntuazioa 0 puntu (oso jarrera intoleranteak adieraziko lituzke horrek), eta 16,70 puntu artekoa (oso jarrera tolerantea) izan daitekeela.

60. grafiko horretan ikus daitekeen bezala, EAEko biztanleen jarrera ez da berdina alderdi guztietan: alderdiren batek balio handiak lortu ditu, alderdi bakoitzeko 16,70 punturen mugatik hurbil; beste batzuetan, berriz, puntuazioa ez da iritsi batez besteko puntuaziora.

Alde batetik, nabarmentzekoa da erljiorekin lotutako irekitasunaren alderdia lan-esparruan, agian pertsonak inguruan dituen pertsonak aukeratzeko gaitasun txikiagoa duelako eta inplikazio afektibo txikiagoa duelako. Esparru horretan handia da EAEko biztanleen puntuazioa, eta horrek esan nahi du irekia eta inklusiboa dela galdetutako pertsonak duena ez bezalako erljiorekin lotutako irekitasunaren alderdia. Alde bestetik, nabarmentzekoa da erljiorekin lotutako irekitasunaren alderdia lan-esparruan, agian pertsonak inguruan dituen pertsonak aukeratzeko gaitasun txikiagoa duelako eta inplikazio afektibo txikiagoa duelako. Esparru horretan handia da EAEko biztanleen puntuazioa, eta horrek esan nahi du irekia eta inklusiboa dela galdetutako pertsonak duena ez bezalako erljiorekin lotutako irekitasunaren alderdia.

### 60. grafikoa. Erlijio-aniztasunarekiko indize partzialen (2023) balioa sei alderdietan



*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

Beste muturrean bi esparru nabarmentzen dira, eta esparru horietan EAEko biztanleek jarrera, iritzi eta joera uzkurragoak erakutsi dituzte erlijio-aniztasunarekiko eta horrek dakarrenarekiko. Hezkuntza-esparruan erlijio-aniztasunari erantzuteko praktika bereziekiko tolerantziaz ari gara; esate baterako, eskolako jantokietan menu desberdinak sartzea, tradizio desberdinetako erlijio-jaiekin lotutako egokitzapenak, jarduera fisikoan eta pertsonen arteko harremanetan edo ebaluazio-aldian aldaketak egitea. Euskal gizarteak alderdi honetan lortu duen puntuazioa ez da iritsi eskalaren erdiko puntura (7,57 puntu, 16,70etik).

Eta beste horrenbeste gertatu da herrialdeko ordezkariak instituzional handieneko postuan beste erlijio bateko pertsonak egotearekiko tolerantziarekin, hala nola Eusko Jaurlaritzaren lehendakariaren: euskal gizartea ez dago oso prest aukera hori onartzeko (8,96 puntu, 16,70etik).

Erljio aniztasunarekiko irekitasunaren indize orokorrera itzuliz, jokabideak bereizten dituzten eta banakako jarrerak azaltzeko gai diren aldagai soziodemografikorik ba ote dagoen jakiteko, lehenik eta behin, bi aldagaiko analisia egin dugu (mendeko aldagai batekin eta beste aldagai independente batekin lan egitea esan nahi du, faktore bateko ANOVA analisia aplikatuz), zeina, mugatua izan arren, ezinbesteko azterketa baita, aldagai anitzeko beste edozein azterketa baino lehen. Mugatua da aldagai soziodemografiko independente batek ezkutatu dezakeelako elkarren artean elkarreragiten duten beste aldagai batzuen efektua edo eragina. Esate baterako, elkarri oso lotutako aldagaiak izaten dira batzuetan, eta aldagai biko analisi batean zaila da horietako bakoitzak duen eragina bereiztea; aldiz, aldagai anitzeko analisiak bakoitza bere lekuan jartzen du.

Bigarrenik, eta aurreko analisi aldagai batekoak eta aldagai bikoak osatzeko eta datuen interpretazioan sakontzeko, aldagai anitzeko metodologiak baliatu ditugu. Izan ere, metodologia horiek lagundu egiten digute aldagaien arteko harremanak hobeto ulertzen, iragartzeko ahalmenik handiena dutenak nabarmentzen, aldagai batzuen eta besteen eragin gurutzatuak saihestuz eta indargabetuz, eta erlijio-aniztasunarekiko euskal gizartea zer errealitatetan bizi den hobeto ezagutzeko aukera emanez.

Gurutzatze aldagai edo aldagai bereizle izan daitezkeen aldagai gisa, honako hauek hartu ditugu kontuan: sexua, adina, bizitokia, ikasketa-maila, erlijioa, euskaraz hitz egitea, ideologia, hileko diru-sarrerak, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, jarduera, sorterrria edo jaioterrria eta estatus sozioekonomikoa.

Aldagai horiek erlijio-aniztasunarekiko irekitasun-mailarekin duten erlazioen bi aldagaiko analisiak adierazi digu estatistikaren aldetik alde nabarmenak daudela euskal gizarteko pertsonen azpitaldeen artean: kolektibo batzuk irekiak eta tolerantreak dira argi eta garbi (puntuazio altuagoak dituztenak), eta beste batzuek jarrera, iritzi, portaera eta jokabide itxiagoak eta intoleranteagoak erakutsi dituzte erlijio-aniztasunarekiko (puntuazio txikiagoak dituztenak). Laburpena 4. taulan aurkeztu dugu, eta hauxe esan dezakegu:

- erlijio-aniztasunarekiko askoz ere irekiagoak dira 18 eta 24 urte arteko pertsonak (73,43 puntu) eta 25 eta 44 urte artekoak (68,01 puntu), 65 eta 74 urte artekoak (56,74 puntu) eta 75 urte eta gehiagokoak baino (58,94 puntu).
- Bizkaian bizi diren pertsonak askoz ere irekiagoak dira erlijio-aniztasunarekiko (66,47 puntu) Gipuzkoan bizi direnak baino (60,62 puntu).
- erlijio-aniztasunarekiko askoz ere irekiagoak dira unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (68,15 puntu) lehen mailako ikasketak (60,48 puntu) edo bigarren mailako ikasketak dituztenak baino (63,42 puntu)
- erlijio-aniztasunarekiko askoz ere irekiagoak dira euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (65,51 puntu), euskaraz hitz egiten dutenak baino (62,58 puntu)
- erlijio-aniztasunarekiko askoz ere irekiagoak dira beste erlijio batzuetako pertsonak (76,75 puntu), agnostikoak, ateoak edo erlijioaren kontua axola ez zaienak baino (64,62 puntu) edo erlijio katolikoa dutenak baino (61,70 puntu).

- erlijio-aniztasunarekiko askoz ere irekiagoak dira beren egoera ekonomiko pertsonalarekin pozik edo axolagabe sentitzen diren pertsonak (64,32 puntu), pozik ez daudela diotenak baino (56,69 puntu).
- erlijio-aniztasunarekiko askoz ere irekiagoak dira ikasten ari diren pertsonak (73,66 puntu), lanean ari direnak (66,62 puntu) eta langabezian daudenak (65,77 puntu), erretiratuak daudenak (58,92 puntu) edo etxeko lanetan dihardutenak baino (53,72 puntu)
- atzerrian jaio diren pertsonak askoz ere irekiagoak dira erlijio-aniztasunarekiko (75,83 puntu) Espainiako estatuan jaio direnak baino (62,68 puntu).
- Erlijio-aniztasunarekiko askoz ere irekiagoak dira estatus sozioekonomiko handia eta ertaina-handia duten pertsonak (69,84 puntu), estatus ertaina (64,64 puntu) edo ertaina-txikia dutenak baino (61,40 puntu).

Sexua (esangura 0,139), ideologia (esangura 0,197) eta etxeko hileko diru-sarrerak (esangura 0,063) aldagaiei dagokienez, ez dugu estatistikoki esanguratsuak diren jarrera-desberdintasunik hauteman.

#### 4. taula. Erlijio-aniztasunarekiko irekitasun-indizearekin lotutako aldagaiak

Erlijio-aniztasuna gutxien onartzen duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Erlijio-aniztasuna gehien onartzen duten pertsonen profila
65 urte eta gehiago	Adina	.000	18 eta 44 urte artekoak
Gipuzkoa	Lurraldea	.001	Bizkaia
Lehen eta bigarren mailako ikasketak	Ikasketak	.000	Unibertsitate-ikasketak
Euskalduna	Euskara	.034	Erdalduna
Katolikoak edo agnostikoak	Erlijioa	.000	Beste erlijioetako pertsonak
Beren egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak	Diru-sarrerak	.005	Beren egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak edo berdin zaienak.
Erretiratuak, etxeko lanak egiten dituztenak	Jarduera	.000	Ikasleak, langabe daudenak edo lanean ari direnak
Espainia	Jatorria	.000	Atzeritarra
Txikia, ertain-txikia eta ertaina	Estatua	.000	Ertain-handia eta handia

*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

Elkarreragin horiek argitzeko eta gerta daitezkeen eragin konbinatuak indargabetzeko, aldagai anitzeko metodologia aplikatu dugu, AID edo Elkarreraginen Detektatzaile Automatikoa. Teknika hori aplikatuta, segmentazio-zuhaitz bat lortu dugu. Bertan, alde batetik, portaera iragartzeko edo bereizteko aldagaiak ikus ditzakegu, eta, bestetik, erlijio-aniztasunarekiko irekiagoak



eta toleranteagoak diruditen pertsonen azpitaldeei dagozkien segmentu edo tipologia batzuk, erljio-aniztasunarekiko jarrera, jokaera eta iritzi itxiagoak eta intoleranteagoak adierazten dituzten pertsonez osatutako beste batzuen aldean.

Tipologia hori egiteko, 4. taulan agertzen diren aldagai berak erabili ditugu, bai mendeko aldagaia, erljio-aniztasunarekiko irekitasunaren indizean lortutako puntuazioa, bai independenteak, sexua, adina, bizi den lurraldea, ikasketa-maila, erljioa, euskaraz hitz egitea, ideologia, hileko diru-sarrerak, egoera ekonomiko pertsonalarekiko gogobetetasuna, jarduera, sorterrria edo jaioterria eta estatus sozioekonomikoa.

Aldagai anitzeko metodologia horren aplikazioak ez du ez zehatza ez eztabaida ezina izan nahi, hau da, ez dugu erljio-aniztasunarekiko jarrera eta iritzi gutxi-asko irekiekin eta/edo toleranteekin zerikusia duten aldagaiei buruzko eztabaida itxi nahi, baizik eta errealtatea ikusteko eta ulertzeko modu bat eman besterik ez. Badakigu horren bidez proposatzen dugun tipologia horixe baino ez dela: tipologia bat, sartu ditugun aldagaiek, bildu ditugun bezala bilduta, sortutako tipologia. Zalantzarik gabe, analisi hauek egin aurretik beste planteamendu metodologiko bat egin izan bagenu (adibidez, indizea bera beste modu batera landu izan bagenu, guk jaso ez ditugun aldagai independenteak txertatu izan bagenu, analisisan erabili ditugun beste zenbait kanpoan utzi izan bagenu, edota analisisako beste parametro batzuk aukeratu izan bagenu...), beste tipologia edo segmentu batzuk aterako ziratekeen, desberdinak bai kopuruari dagokionez eta bai deskribatzen dituzten ezaugarriei dagokienez.

Analisiak adierazi digunez, honako hauek dira jokabideak aurreikusteko aldagai egokienak, jarrerak gehien bereizten dituztenak, gure segmentazio-zuhaitzaren iragarleak eta zuhaitz hori bere maila guztietan osatzeko aukera eman dutenak, garrantziaren arabera sailkatuta:


- Lehen mailan, jaioterria (esangura 0,000): jaioterria da iragartzeko aldagai onena, eta bereizi egiten ditu atzerritarrak (erljio-aniztasunerako irekienak) eta Espainiako estatuan jaiotakoak (erljio-aniztasunerako jarrera itxienak dituztenak).
- bigarren mailan, bereizleak dira estatus sozioekonomikoa (esangura 0,000) eta ikasketa-maila (esangura 0,018);
- hirugarren mailan, bereizleak dira etxeko hileko diru-sarrerak (esangura 0,000) eta bizi den lurraldea (esangura 0,046);
- laugarren mailan, erljioa (esangura 0,003) eta norberaren egoera ekonomikoarekin pozik egotea (esangura 0,004) eta ikasketa-maila (esangura 0,035);

- bosgarren mailan, berriz agertzen da etxeko hileko diru-sarreraren aldagaia (esangura 0,003 eta berriz ere bizi den lurraldea (esangura 0,000));
- eta seigarren mailan, euskararen erabilera (esangura 0,035).

Aldagai bereizle horiekin hamabi mota edo segmentu lortu ditugu guztira, erlijio-aniztasunarekiko jarrera eta iritzi onenetatik txarrenetara ordenatuta; honako hauek dira segmentu horiek:

1. Atzerritar jatorriko pertsonak, lehen mailako edo bigarren mailako ikasketak dituztenak eta Gipuzkoan bizi direnak: 83,77 puntu lortu dituzte eta EAE biztanleriaren % 3,2 dira.
2. Atzerritar jatorriko pertsonak, lehen mailako ikasketak dituztenak eta Bizkaian bizi direnak: 81,16 puntu lortu dituzte eta EAE biztanleriaren % 2,3 dira.
3. Atzerritar jatorriko pertsonak, bigarren mailako ikasketak dituztenak eta Bizkaian bizi direnak: 71,91 puntu lortu dituzte eta EAE biztanleriaren % 2,7 dira.
4. Espainiako estatuan jaiotako pertsonak eta estatus ertaina-handia eta handia dutenak: 70,77 puntu lortu dituzte eta EAE biztanleriaren % 20,7 dira.
5. Espainiako estatuan jaiotako pertsonak, estatus ertainekoak, ertain-txikikoak edo txikikoak, etxean hilean 1.000 €-rainoko diru-sarrerak dituztenak eta beren egoera ekonomikoarekin pozik daudenak edo ez pozik ez kontengaitz daudenak: 69,78 puntu lortu dituzte, eta euskal biztanleriaren %16,9 dira.
6. Atzerritar jatorriko pertsonak eta unibertsitate-ikasketak dituztenak: 67,56 puntu lortu dituzte, eta EAEko biztanleriaren % 2,2 dira.
7. Espainiako estatuan jaiotako pertsonak, etxean 1.000 € baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenak, Bizkaian edo Araban bizi direnak eta lan egiten dutenak edo ikasleak direnak: 67,48 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 12,2 dira.
8. Espainiako estatuan bizi diren pertsonak, estatus ertainekoak, ertain-txikikoak edo txikikoak, etxean 1.800 € baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenak, langabezian daudenak, erretiratuak direnak edo etxeko lanetan dihardutenak, eta ez dira euskaldunak: 62,47 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 7,6 dira.

61. grafikoa. Erljio-aniztasunarekiko jarreraren segmentazio-zuhaitza eta tipologiak



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

9. Espainiako estatuan jaiotako pertsonak, estatus ertainekoak, ertain-txikikoak edo txikikoak, etxean hilean 1.000 €-rainoko diru-sarrerak dituztenak eta egungo egoera ekonomikoarekin batere gustura ez daudenak: 57,07 puntu lortu dituzte, eta EAEko biztanleriaren % 4,0 dira.
10. Espainiako estatuan jaiotako pertsonak, etxean 1.000 € baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenak, lanean ari direnak edo ikasleak eta Gipuzkoan bizi direnak: 55,54 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 10,1 dira.
11. Espainiako estatuan jaiotako pertsonak, estatus ertainekoak, ertain-txikikoak edo txikikoak, etxean 1.800 € baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenak, langabezian daudenak, erretiratuak direnak edo etxeko lanetan dihardutenak eta euskaldunak: 54,07 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 6,3 dira.
12. Espainiako estatuan jaiotako pertsonak, estatus ertainekoak, ertain-txikikoak edo txikikoak, etxean 1.001 eta 1.800 € bitarteko diru-sarrerak dituztenak, langabezian daudenak, erretiratuak direnak edo etxeko lanetan dihardutenak: 48,76 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 11,8 dira.

EAEko biztanleria hamabi tipologia, segmentu edo azpitaldetan segmentatu ahal izateaz gain, edo beste kopuru batean eginda ere, azpimarratu beharreko kontua ez da hori, baizik eta ematen duela badirela zenbait aldagai garrantzitsuak direnak erlijio-aniztasunarekiko jokabide, jarrera, sinesmen, iritzi eta balio gutxi-asko irekiak eta toleranteak eta itxiak eta intoleranteak iragarri nahi direnean. Eta, alde horretatik, garrantzi berezia dute honako aldagai soziodemografiko hauek: jaioterria (atzeritarra edo Espainiako estatuan jaioa), estatusa, ikasketa-maila, etxeko hileko diru-sarrerak, bizi den lurraldea, jarduera, egoera ekonomiko pertsonalarekiko pozik egotea eta euskararen erabilera.

Alabaina, era berean, bidezkoa da argi uztea erlijio-aniztasunarekiko irekiak eta toleranteak eta itxiak eta uzkurak diren pertsonen arteko alde zehazterakoan, azken bariantzaren alde txiki bat baino ez dela azaltzen segmentazio-zuhaitzak oinarri dituen aldagai horien bidez.

Hain zuzen, aipatu berri dugun analisisan, bariantza osoaren % 14,19 besterik ez dugu azaltzen, argi utzi behar baita euskal gizartea osatzen duten herritar talde batzuen eta besteen arteko alde asko beste aldagai batzuen arabera direla edo beste aldagai horien arabera azal daitezkeela, izaera psikosozialeko aldagaien eta nortasunari loturiko aldagaien arabera, batez ere.

Aurrekoarekin, orain arte azaldutako aurkikuntzak erlatibizatzea da gure asmoa. Izan ere, datu eta aurkikuntza horiek aukera ematen dute bai EAEko biztanleek eta bai gure ingurune politiko, ekonomiko eta sozialeko beste gizarte batzuek erlijio-aniztasunarekiko dituzten jarreraren fenomeno hobeto ulertzeko, baina, era berean, jabetu behar dugu oso mugatuta daudela gizarte-errealitate horrenganako tolerantzia handiagoa edo txikiagoa ageri duten jokabideak iragartzeko eta azaltzeko.

## Talde handiak euskal biztanlerian

Segmentazioaren aldagai anitzeko teknika eta horren ondoriozko tipologiak oso grafikoak dira, eta aldagai soziodemografikoek portaera iragartzeko aldagai gisa duten zeregin sakontzeko ere balio dute. Baina egia da, halaber, teknikak ez direla oso sendoak estatistikaren ikuspegitik eta, honenbestez, balitekeela ezarritako analisi-parametroek azken moten kopurua eta profila baldintzatzea (izan ere, baldintzatu egiten dute).

Erlijio-sinesmen desberdineko pertsonetikiko jarrerari eta iritziei dagokienez, EAEko biztanleria hobeto ezagutzen jarraitzeko, “euskal biztanlerian talde handiak” deitu dieguna finkatu dugu, haien jarreraren eta iritzien arabera, erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indize sintetikoa delakoan ez ezik, euskal gizarteak aurreko atalean bereizi ditugun sei alderdietan dituen jarreretan ere bai (talde sozial horrekiko jarrera eta iritzi orokorrak eta globalagoak sostengatzen dituzte alderdi horiek). Orain arte bereizi ditugun zortzi esparru edo dimentsioetako bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera sailkatu nahi izan da biztanleria erlijio-aniztasunarekiko jarrerari dagokionez: Gurtza-lekuekiko tolerantzia alderdia, Erlijio-aniztasunarekiko enpatia alderdia, Erlijio-aniztasunarekiko tolerantzia familia-esparruan alderdia, Erlijio-aniztasunarekiko irekitasuna erakundeetan alderdia, Erlijio-aniztasunarekiko tolerantzia lan-esparruan alderdia eta hezkuntza-esparruan erlijio-premiei erantzuteko malgutasuna alderdia.

Horretarako, aipatutako sei alderdiei dagozkien indize partzialak hautatu ondoren, aldagai anitzeko sailkapen-analisia –ez-hierarkikoa– aplikatu diegu. Hainbat proba egin ondoren<sup>18</sup>, badirudi teknikaren baldintzak hobekien betetzen dituen sailkapen-soluzioa dela populazioa lau talde handitan esleitzea ahalbidetzen duena, nabarmendutako sei esparruetan herritarrek dituzten jarreraren eta iritzien arabera.

<sup>18</sup>Aldagai anitzeko *K-means* sailkapen-teknika honetan emaitzak interpretagarriak izan daitezzen, bi baldintza bete behar dira: batetik, talde barruko homogeneotasuna (talde bakoitzaren barne-osaera homogeneoa, analisisan sartutako aldagaiei dagokienez, sei indize partzialak edo sei alderdiak, gure kasuan) eta taldeen arteko heterogeneotasuna (ondoriozko taldeen arteko portaera-alde esanguratsuak).

5. taulak lau taldeetako bakoitzak sei alderdietan ematen dituen emaitzak erakusten ditu, horietako bakoitzak 0tik 16,70era bitarteko puntuazioak izanik.

5. taula. Azken konglomeratuetako zentroak

	Talde irekia	Talde kontraesankorra	Talde itxia	Talde anibalentea
Gurtza-lekuekiko tolerantzia	16,52	4,59	0,88	7,94
Erlijio-aniztasunarekiko enpatia	15,84	4,98	1,23	7,91
Erlijio-aniztasunarekiko tolerantzia familian	11,32	13,34	6,05	8,17
Erakundeen erlijio-aniztasunarekiko irekitasuna	9,8	9,87	6,18	7,99
Erlijio-aniztasunarekiko tolerantzia lan-esparruan	14,86	15,41	10,76	12,41
Erlijio-aniztasunaren beharrei hezkuntza-esparruan erantzuteko malgutasuna	8,09	12,38	3,89	5,48

*Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.*

Taulan ikusten denez, taldeetako batek (Talde Irekia deitu diogu), oso jarrera toleranteak ditu lau alderditan (11 puntutik gorako puntuazioak), eta tarteko jarrerak, berriz, beste bi alderdietan (8-10 puntu artean). Talde horrek oso jarrera irekiak eta positiboak ditu gurtza-lekuak izateari eta haien kokapenari, erlijio desberdinekiko sinpatiari, lan-esparruan beste erlijio-sinesmen batzuetako pertsonetikiko tolerantziari eta familia-esparruan erlijio-aniztasunarekiko tolerantziari dagokienez. Erakunde-esparruan erlijio-aniztasunarekiko irekitasunari eta erlijio-aniztasuna aintzat hartzen duten hezkuntza-arloko praktika berriei dagokienez, jarrera positibo epelagoak dituzte.


Talde anibalentea deritzogun kolektiboak honako jarrera eta iritzi hauek dituzten pertsonak biltzen ditu: jarrera anibalenteak edo tartekoak alderdietako lautan (8 puntu inguruan dabilta), argi eta garbi toleranteak alderdietako batean (12 puntutik gora) eta askoz ere uzkurragoak beste batean (ia ez dira 5 puntutik pasatzen). Beraz, talde horren ezaugarri nagusia da tarteko jarrerak dituela, argiekin eta itzalekin, gurtza-lekuak izateari eta haien kokapenari, erlijio desberdinekiko sinpatiari, familia-esparruan eta erakunde-esparruan erlijio-aniztasunarekiko tolerantziari dagokienez. Lan-esparruan, jarrera nabarmen irekia erakutsi dute erlijio-aniztasunarekiko, eta, hezkuntza-esparruan, berriz, intolerantzia argia eta jarrera itxia erlijio-aniztasunari erantzuteko praktika berrien edo egokitzapenen aurrean.

Taldeetako beste bat Talde Kontraesankor gisa definitu dugu, jarrera eta iritzi polarizatuagoak dituzten pertsonak biltzen baititu, kontuan hartzen dugun esparruaren arabera. Talde horrek oso jarrera eta iritzi positiboak ditu alderdietako hirutan (12 puntu baino gehiago), eta oso jarrera murriztaileak eta baztertzailleak, berriz, bi alderditan (5 puntura iristen ez diren puntuazioak), eta jarrera positibo antzekoak gelditzen den alderdian (10 puntu inguru).

Talde honek oso jarrera irekiak eta positiboak ditu lan-esparruan beste erlijio-sinesmen batzuk dituzten pertsonetikiko tolerantziari, familia-esparruan erlijio-aniztasunarekiko tolerantziari eta hezkuntza-esparruan erlijio-aniztasunari erantzuteko praktika berriak edo egokitzapenak egiteari dagokienez. Hala ere, jarrera guztiz negatiboa du gurtza-lekuak izatearekin eta haien kokapenarekin loturiko guztian, bai eta erlijio desberdinetako pertsonetikiko enpatiarekin loturiko guztian ere. Duten jarrera tarteko mailan dago erakunde-esparruan erlijio-aniztasunarekiko irekitasunari dagokienez.

Azkenik, laugarren talde bat dugu, Itxia deitu dioguna, sei alderdietan puntuazio txikiak dituelako. Gainera, alderdi horietako hirutan oso jarrera itxiak dituzte (0 puntu inguruko puntuazioarekin), bi alderdietan ere jarrera baztertzailak dituzte (6 puntu inguruko balioekin), eta alderdietako batean bakarrik ageri dira jarrera positibo samarrak (10 puntu inguruko puntuazioarekin). Talde honen ezaugarri nagusia da jarrera guztiz itxi eta negatiboak dituela gurtza-lekuak izateari eta haien kokapenari, erlijio desberdinetako pertsonetikiko enpatiarri eta erlijio-aniztasunak hezkuntza-esparruan dakartzan praktika berriei dagokienez. Jarrera negatiboa du, halaber, familia-esparruan erlijio-aniztasunarekiko tolerantziarekin eta erakunde-esparruan erlijio-aniztasunarekiko irekitasunarekin zerikusia duen guztian. Azkenik, jarrera positibo samarra du lan-esparruan beste erlijio-sinesmen batzuetako pertsonetikiko tolerantziari dagokienez.

62. grafikoa. Lau taldeen puntuazioak sei alderdietan (amaierako zentroak)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

Lau talde horiek Erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren indizea 2023 azterlanean lortu dituzten guztizko puntuazioak oso desberdinak dira, eta agerian utzi dute beren jarrerak eta iritziak ere desberdinak direla. Baina talde guztiak ez dira nabarmen desberdinak elkarren artean:

- pertsona irekien taldeak beste hiru taldeek baino puntuazio nabarmen handiagoa lortu du. Gainera, puntuazio handia izan du (84,14 puntu), eta horrek esan nahi du talde horrek tolerantzia eta irekitasun handiko jarrerak eta iritziak dituela erlijio-aniztasunarekiko eta beste erlijio batzuetako pertsonetikiko.
- pertsona itxien taldeak beste hiru taldeek baino puntuazio nabarmen txikiagoa lortu du. Gainera, puntuazio txikia du (20,86 puntu), eta horrek esan nahi du argi eta garbi arbuiatzen dituztela erlijio-aniztasuna eta beste erlijio batzuetako pertsonak.
- anibalente eta kontraesankor deritzen taldeek, multzo osoaren erlijio-aniztasunarekiko jarrera islatzen duen puntuazio globalean, estatistikoki ez dute alde esanguratsurik nabari: biak daude eskalaren batez bestekoaren inguruan (49,15 puntu talde anibalenteak eta 49,04 puntu talde kontraesankorrak). Baina nabarmen bereizten dira talde irekitik eta talde itxitik.

63. grafikoa. Taldeen puntuazioak erlijio-aniztasunarekiko irekitasunaren indizean (2023)




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

Azterketa berezilea aplikatzeak gure iritziak berresteko eta lau talde horietan biztanleriari buruz egin dugun sailkapena onargarria ote den egiaztatzeko aukera eman digu.



64. grafikoa. Euskadiko herritar taldeen lurralde-mapa



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

Hiru funtzio bereizleen azterketak<sup>19</sup> adierazten digu aldagai guztiak bereizleak direla: lehen funtzio bereizlea gurtza-lekuekiko tolerantziaren eta erlijio-aniztasunarekiko enpatiaren alderdiez osatua dago; bariantza osoaren % 95,2 biltzen du; eta bereizi egiten ditu talde irekia beste hiruetatik, talde itxia beste hiruetatik eta talde anibalentea eta kontraesankorra beste bietatik (ez elkarren


<sup>19</sup>Bi lehen funtzioak bereizleak dira, 0.966 eta 0.639 korrelazio kanonikoekin, eta Wilkins eta Chi-ren lambda karratuko kontraste erabat esanguratsuak ditu: 0.000. Hirugarrenak, ordea, 0.081 korrelazio kanonikoa du, eta Wilkins eta Chi-ren lambda kontraste ez esanguratsuak: 0.094.

artean). Bigarren funtzioa erlijio-aniztasunarekiko tolerantzia familia-esparruan, erlijio-aniztasunarekiko tolerantzia lan-esparruan eta hezkuntza-esparruan egokitzapenak egiteko malgutasuna alderdiez osatua dago; bariantza osoaren % 4,8 biltzen du; eta bereizi egiten du, funtsean, talde kontraesankorra beste hiru taldeetatik, batez ere anbibalentetik eta itxitik. Azkenik, erakundeetan erlijio-aniztasunerako irekitasunaren alderdiak osatzen du hirugarren funtzioa, baina ez da lau taldeak bereiztera iristen.

Funtzioek ondo asko bereizi dituzte lau taldeak; izan ere, analisi bereizleak zuzen sailkatu ditu taldekatutako jatorrizko kasuen % 96,2 eta balidazio gurutzatu bidez taldekatutako kasuen % 95,5.

Bestalde, lau taldeen pisua –tamaina– aldakorra da. Irekia deitu diogun taldeak lagin osoaren % 52 inguru biltzen du, talde Anbibalenteak % 23, Kontraesankorrak laginaren % 13 eta, azkenik, erlijio-aniztasunarekiko Itxia deitutakoak lagin osoaren % 12 inguru hartzen du.

65. grafikoa. Taldeen tamaina




Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

Amaitzeko, talde bateko edo besteko kide izatearekin lotura handiena duten aldagai soziodemografikoak –eta horietako taldeak– aztertzea erabaki genuen. Horretarako, kontingentzia-tauletan eta elkarrekikotasun sinpleen faktore-analisan (66. grafikoa) oinarritu gara, oso soluzio grafiko argigarri eta intuitiboa ematen baitigu analisi horrek, atal honetan ateratzen joan diren profilak errepikatuz. Hala, honako lotura hauek hauteman ditugu:

- Talde Irekia: 18 eta 44 urte bitarteko pertsonak dira, Bizkaian bizi direnak, unibertsitate-ikasketak dituzte, ez dute euskaraz hitz egiten, pertsona agnostikoak edo ateoak dira, erlijioarekin ez dute inolako zerikusirik edo katolikoa ez beste erlijio batekoak dira, ideologikoki zentro-ezkertiarrak, hilean 1.001 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte edo 2.500 € baino gehiagokoak, lanean ari dira edo ikasleak dira, atzeritik jatorrikoak eta estatus sozioekonomiko handikoak edo ertain-handikoak.

66. grafikoa. Elkarrekikotasun Sinpleen analisisa. Taldeen iritzi-mapa



Iturria: Geuk egina, Neurtu 2023 azterlana oinarri hartuta.

- Talde Anbibalentea: 75 urteko eta hortik gorako pertsonak, Araban edo Bizkaian bizi direnak, lehen mailako ikasketak dituzte, ez dute euskaraz hitz egiten, katolikoak dira, ideologikoki zentro-ezkertiarrek edo zentro-eskuindarrak, hilean 2.500 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte, langabezia edo erretiratuak daude, Espainian jaioak eta estatus sozioekonomiko txikikoak edo ertain-txikikoak.

- Talde Kontraesankorra: 25 eta 44 urte bitarteko pertsonak, Gipuzkoan bizi direnak, bigarren mailako ikasketak dituzte, euskaldunak dira, agnostikoak edo ateoak dira, erlijioarekin ez dute inolako zerikusirik, ideologikoki ezkertiarak, hilean 2.500 € baino gehiagoko diru-sarrerak dituzte, lanean ari dira eta estatus sozioekonomiko ertaina dute.
- Talde Itxia: 65 urte edo gehiagoko pertsonak, Gipuzkoan bizi direnak, lehen mailako ikasketak dituzte, katolikoak dira, ideologikoki ezkertiarak, hilean 1.001 eta 1.800 euro bitarteko diru-sarrerak dituzte, erretiratuak eta etxeoandreak dira, Espainian jaioak eta estatus sozioekonomiko txikikoak edo ertain-txikikoak.



# Ondorio orokorrak

Azken atal honetan laburbildu eta laburki nabarmenduko ditugu gizarte-interes handienekotzat jotzen ditugun informazioak, txostena osatzen duten bi bloke handiak kontuan hartuta: 1) euskal gizartearen irekitasuna aniztasunari dagokionez eta 2) erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak.

## **Euskal gizartearen irekitasuna aniztasunari dagokionez**

Herritar gehienek adierazi dute nahiago dutela jatorri, kultura, erlijio-sinesmen eta sexu-orientazio eta -identitate desberdineko pertsonekin bizi, zentzu horietan guztietan homogeneousatasuna nagusi den gizarte batean bizi baino. Era berean, EAEko hamar pertsonatik zortzik baino gehixeagok uste dute kolektibo eta gizarte-talde jakin batzuetako pertsonetikiko diskriminazioa arazo garrantzitsu samarra dela gutxienez; biztanleen erdiek baino gehiagok, berriz, adierazi dute arazo oso edo nahiko garrantzitsua dela diskriminazioa.

EAEko biztanleek zabalduago ikusten duten diskriminazio-arrazoia ijitoa izateagatik diskriminazioa da (% 71,4); halako alde batekin horren ondotik datoz gehiengoena ez den jatorri etnikoa izateagatik (% 53,2), pertsona arrazializatua izateagatik (% 51,3), trans pertsona izateagatik (% 50,4) eta buruko gaixotasunen bat izateagatik (% 49,3) sortutako diskriminazioak. Kontrako muturrean, gutxien hedatutzat jotzen den diskriminazio-arrazoia erlijio-sinesmenengatik egindako diskriminazioa da (% 19,5).

Esparruen arabera ez diskriminatzeari buruz euskal gizarteak duen jarreran sakonduz, nabarmendu behar da EAEko biztanleek, % 90 - % 80 artean, adierazi dutela ez luketela jarrera negatiborik izango baliabide ekonomiko gutxiko, beste erlijio bateko, sexu-joera ez heterosexualeko, jatorri atzerritarreko, adineko, trans generoko edo desgaitasunen bat duten pertsonak kontratatzeari begira.

Hala ere, joera negatiboaren mailak neurritsuagoak dira buruko gaixotasuna duen pertsona bat (% 72,2) eta ijito bat (% 68,8) kontratatzeari begira. Bestalde, hamar pertsonatik bik baino gehiagok berriaz adierazi dute saihestuko luketela edo ez luketela kontratatuko buruko gaixotasuna duen pertsona bat; aldiz, hamar pertsonatik hiruk (% 27) esan dute saihestuko luketela ijito bat kontratatzea edo ez luketela kontratatuko.

Antzeko jarrera ikusi dugu etxebizitza-esparruko diskriminazioari dagokionez, baina diskriminaziorik ezaren aldeko ehunekoak ez dira hain nabarmenak. Hala, biztanleen % 80k baino gehiagok adierazi dute etxebizitza alokatuko lioketela beste erlijio bateko pertsona bati, orientazio sexual ez-heterosexuala duenari, desgaitasunen bat duenari edo trans generoko pertsona bati. Atzerritar jatorriko pertsonen kasuan, kontrataziorako joera positibo garrantzitsuari kontrajarrita (% 90,5), nabarmentzekoa da, etxebizitza bat alokatu behar denean, % 79,5 dela alokatuko luketela adierazi duten pertsonen ehunekoak. Bestalde, hamar pertsonatik hiru inguruk adierazi dute saihestu egingo luketela edo ez lioketela etxebizitza bat alokatuko buruko gaixotasuna duen eta baliabide ekonomiko gutxi dituen pertsona bati. Azkenik, biztanleen % 44,5ek adierazi dute saihestu egingo luketela edo ez lioketela etxebizitza bat alokatuko ijito bati.

Diskriminazioaren aurkako borrokan erakundeek egiten duten lanaren balioespenari eta eskubideen ezagutzari dagokienez, gehienek (% 60,9k) adierazi dute ez dakitela zer eskubide dituzten diskriminazioaren biktima izaneko gero. Herritarren erdiek, gutxi gorabehera, uste dute erakundeek ez dutela ahalegin nahikoa egiten indarkeria matxista desagerrarazteko (% 54); era berean, hamar pertsonatik lauk gutxi gorabehera uste dute erakundeek egiten duten ahalegina ez dela nahikoa adinagatik diskriminazioa desagerrarazteko.

Edizio honetan, herritarrei galdetu diegu, halaber, zer iritzi duten informazio anonimoa erregistratzeari buruz eta diskriminazioa eragin dezaketen ezaugarriei eta bizi-inguruabarrei buruz, horri buruz datu estatistikoak sortzeko. Biztanle gehienak (% 60 eta % 70 artean gutxi gorabehera) proposatutako ezaugarri pertsonalei buruzko informazio anonimoa ematearen alde daude. Nabarmentzekoa da osasunari buruzko datuak ematearen aldeko jarrera (% 75,6), izan daitekeen desgaitasunen bati buruzko datuak ematearekin batera (% 73,8). Kontrako jarrera altuenak % 25 ingurukoak dira, eta larruazalaren koloreari (% 25,6), sexu-orientazioari (% 25,8) eta erlijio-sinesmenei (% 24,4) buruzko datuen erabilerari lotuak daude.

## Erlijio-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak

Euskal gizartearen gehiengoak adierazi du badituztela lagun edo ezagun katolikoak (% 98,4), eta erdiak baino gehiagok badituztela lagun edo ezagun musulmanak (% 62,7). Hamar pertsonatik hiruk baino gehixeagok adierazi dute badutela harremana pertsona ebanjelikoekin / protestanteekin (% 32,1) eta Jehovaharen lekukoekin (% 30,5); aldiz, gutxiagok adierazi dute, biztanleen % 10 inguruk, harremana dutela pertsona ortodoxoekin (% 12,1), budistekin (% 8,4) eta juduekin (% 8,1).

Hamar pertsonatik zortzi Euskadiko erlijio-komunitate guztiek beren gurtza-zentroak ezartzeko eskubidea izatearen alde daude. Erljio-komunitate guztiek beren gurtza-zentroak ezartzeko eskubidea izatearen aurka agertu diren pertsonen talde minoritarioaren barruan (gutzizko biztanleen % 20 baino gutxiago), gehienek uste dute ez liratekeela onartu behar gurtza-zentro musulmanak (% 87,9), Jehovaharen lekukoak (% 61,4) eta erlijio ebanjeliko / protestantearen zentroak (% 50,3).

Gurtza-zentroen kokapenari dagokionez, biztanleen % 68,4 gurtza-zentro berriak udalerriko edozein tokitan jartzearen alde daude. Aldiz, % 22,9k uste dute zentro horiek leku periferikoetan kokatu beharko liratekeela, eta % 3k adierazi dute, euren ustez, ez litzatekeela gurtza-zentro berriak inon ezartzeko aukerarik eman behar.

Tanatorioetan, aireportuetan, espetxeetan eta ospitale publikoetan gurtza-zentroak kudeatzeari dagokionez, biztanleen % 50 inguruk adierazi du bat datorrela erlijio-sentsibilitate desberdinak hartuko dituzten gurtza-zentroak egotearekin tanatorioetan (% 52,5), espetxeetan (% 47,8) eta ospitale publikoetan (% 45,5). Aireportuen kasuan, zertxobait neurritsuagoa da (% 42) aukera horren alde egin duten pertsonen ehunekoa.

Bizikidetzari eta pertsonen arteko harremanei buruzko jarrera eta iritzi zehatzak jasotzean, ikusi dugu hamar pertsonatik bederatzik adierazi dutela onartuko luketela erlijio desberdinetako pertsonekin lan egitea eta ikastea, bai eta norberarena ez den erlijioa duen pertsona bat euren nagusia izatea ere. Adierazi den onarpen-portzentajea ere gehiengo da, baina neurritsuagoa norberarena ez bestelako erlijioak dituzten pertsona asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea planteatu denean (% 74,3k onartuko lukete, eta % 19,6k saihestuko lukete edo saihesten saiatuko lirateke) eta seme-alabak beste erlijio batzuetako familia fededunetatik datozen adin txikiko askok ikasten duten ikastetxe batera eramatea planteatu denean (% 72,7k onartuko lukete, eta % 18,5ek saihestuko lukete edo saihesten saiatuko lirateke).

Biztanleen ia erdiak ikastetxeetan erlijioa irakastearen aurka daude; izan ere, % 46,9k uste du eskola-curriculumetik kanpo egon behar duela erlijioak. Bestalde, herritarren laurdenak adierazi du irakaskuntza horren alde dagoela, baldin eta erlijioa ikasgaia derrigorrezkoa ez bada eta hartan ateratako nota espedientean jasotzen ez bada (% 26,9). Azkenik, beste % 18,2 ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde dago (horrekin loturiko baldintzarik edo ñabardurarik gabe).

Ikastetxeetan (baldintzekin edo baldintzarik gabe) erlijioa irakastearen alde dauden pertsonen artean, gehiengoak (% 73,1) adierazi du erlijioa ikasgaien eman beharreko edukiek Euskadin presentzia handiena duten erlijioen azterketa jorratu beharko luketela.

Gainera, herritar gehienek uste dute hezkuntza-sistemak bermatu egin behar duela irakasleen etengabeko prestakuntza erlijio-aniztasunari buruz (% 63), eta irakasleek erlijio minoritarioak izatearen alde daude halaber (% 55,7). Era berean, euskal gizartearen gehiengoak argi eta garbi gaitzetsi du neskatoak eta mutikoak bereiztea (% 85,6). % 6 dira argi eta garbi horren alde agertu direnak (erlijio-sinesmenetan oinarrituta).

Bestalde, diskriminazio- eta indarkeria-egoera esplizituei dagokienez, biztanleen ia erdiek adierazi dute katolikoa ez den erlijio bateko fededun bati buruzko aipamen negatiboak edo zurrumurru negatiboak entzun edo ikusi dituztela (% 45,2), eta % 36,7k adierazi du isekak, txantxak, txistek, imitazioak edo keinuak entzun eta ikusi dituela. % 23,4k adierazi du irainak entzun edo ikusi dituela, eta % 16,2k adierazi du erlijio katolikoa ez den beste erlijio bateko pertsona fededun bat kontuan ez hartu, bakartu edo nolabait baztertu duten egoerak bizi izan dituela. Halaber, biztanleen % 10ek adierazi du ikusezintasun-egoerak (% 13), mehatxuak (% 12,43), eskola-jazarpena (% 11,7) eta eraso fisikoren bat (% 11,1) entzun edo ikusi dutela. Biztanleen % 6,6k adierazi du laneko jazarpen-kasuren baten berri izan duela.

Erljio-aniztasunarekiko irekitasunaren indizetik (2023) abiatuta lortutako informazioa zehatz aztertuta, honako ondorio hauek atera daitezke:

- Euskal herritarrek erlijio-aniztasunarekiko duten jarrera eta iritzia positibo samarra da, nahiz eta hobetzeko tarte nabarmena izan. Jarrera hori laburbiltzen duen indize sintetikoa egin dugu, Erljio-aniztasunarekiko irekitasunaren indizea 2023 izenekoa, eta euskal gizarteak erlijio-aniztasunarekiko duen irekitasunaren mailaren, jarrera gutxi-asko irekiaren eta iritzi gutxi-asko tolerantteen berri ematen du. Indize hori 0 puntuen (jarrera itxienak eta intoleranteenak) eta 100 puntuen (jarrera irekienak eta tolerantteenak artean mugitzen da: Lehen urte honetan 64,05 puntu lortu ditu.



- Datu hori Ikuspegik egindako beste barometroetan lortutakoekin alderatuz gero (atzerritar jatorriko biztanleria, aniztasuna oro har, LGTBI pertsonak, Ijito Herria), tarteko puntuan dago erlijio-aniztasunekoa, euskal gizarteak atzerritar jatorriko pertsonetikiko duen tolerantzia-indizeak lortutako baliotik oso gertu.
- Irekitasunaren indizeak aukera ematen digu EAeko biztanleek erlijio-aniztasunarekiko duten jarrera eta iritzia une jakin batean kokatzeko (zundaketaren unea), eta aukera emango digu haien bilakaera ikusteko eta etorkizunean izango diren aldaketak monitorizatzeko (denboran zehar egindako hainbat neurketetan).
- Lortutako datuek erakutsi digutenez, estatistikaren aldetik esanguratsuak diren aldeak daude erlijio-aniztasunarekiko jarreraren eta iritzietan, euskal gizartean hainbat pertsona-azpitaldek sostengatzen dituztenak. Hamabi segmentu ezarri ditugu, 48,76 eta 83,77 puntu bitarteko balioetan mugitzen direnak. Nolanahi ere, indize horretan ez dugu hauteman puntuazio oso-oso txikiak dituen segmenturik.
- Era berean, aldagai soziodemografiko batzuk hauteman ditugu, herritarrak bereizten dituztenak eta tolerantzia handiko edo txikiko jarrerak eta iritzia bereizteko aukera ematen dutenak, nahiz eta desberdintasunak intentsitateari lotuta dauden eta ez muturreko jarrerei. Jarrera horiek ondoen iragartzen dituzten aldagaien artean, pertsonen jatorria nabarmendu nahi dugu lehen mailan (jarrera irekiagoak eta malguagoak atzerritar jatorriko pertsonen artean), eta, bigarren mailan, berriz, haien estatus sozioekonomikoa eta prestakuntza-maila.
- Erlijio-aniztasunarekiko jarrera orokorra osatzen duten sei alderdiei erreparatuta, lau pertsona-talde bereiz ditzakegu, haien jarreraren eta iritzien arabera:
